

hh  
hik hasi

Haurren autonomia

Eskola Agenda 21

Musika eta kantagintza eskolan


Matematika Lehen Hezkuntzan

Argazkiak dokumentazio narratiboetan

'Orain' erlaxazioa eta kontzentrazioa

Idoia Torregarai

2022




“ Hezkuntzaren arloan akordio sendoa lortzeko pedagogia handia egin behar da Nafarroan ”

JOSE LUIS MENDOZA

# EZAGUTU GURE HERRIAREN HISTORIA

EZAGUTZA  
LIBURUA



## LUR eta AMETO Euskal Herriaren historia



IPUINAK

[www.luretaametshistorian.eus](http://www.luretaametshistorian.eus)

Katxiporreta

ikastolenelkartea

elkar

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## HAURRAREN AUTONOMIA: NORBERA IZATEKO IBILBIDEA

800 lagun inguru elkartu ziren "Haurraren autonomia" izenburupean, Hik Hasik antolatuta, urrian egin ziren jardunaldietan. Barne-gogoarekin, askatasunarekin, eraikuntza subjektiboarekin, harremanetan oinarrituriko prozesu psikikoarekin, plazerarekin, norbere kabuz pentsatzearekin... lotzen dute adituek autonomia.

ELKARRIZKETA / 18

## JOSE LUIS MENDOZA

Nafarroako Hezkuntza kontseilari berriak agintaldi honetarako erronkak izan ditu hizpide. Hezkuntza-komunitateari autonomia eman eta, era berean, erabakietan integratzea izango da erronka horietako bat. Bestalde, lau alderdien artean adosturiko 38 hezkuntza-akordioek markatuko dute norabidea, bere esanetan.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** GrafIk.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-10-15).

Kopurua: 3.800 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipa-tzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Autonomiaren arloan ere, hitzetatik ekintzetara

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Haurraren autonomia

18 ELKARRIZKETA

JOSE LUIS MENDOZA

"Hezkuntza-komunitateari autonomia handiagoa eman nahi diogu; heldutasunez tratatu nahi dugu"

24 ESPERIENTZIAK

Eskola Agenda 21

28 EKARPENAK 1

Musika eta kantagintza

30 EKARPENAK 2

Matematika LHn

34 GALDEIDAZU

ALFREDO HOYUELOS

Nola atera argazkiak dokumentazio narratiboak egiteko?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Orain' CDa: Kontzentrazioa lantzeko erlaxazio-ariketak

42 ATZEKO ATETIK

Idoia Torregarai

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

hezkuntza plataformen  
TOPAGUNEA

INPOSIZIORIK EZ!

GUK, ORAIN, HEMEN  
GURE HEZKUNTZA  
ERAIKI!

AZAROAK 28 · LARUNBATA  
MOBILIZAZIO EGUN NAZIONALA

ARABA · BIZKAIA · GIPIZKOA · NAFARROA



# Autonomiaren arloan ere, hitzetatik ekintzetara

HAURRAK ZENBAIT MOMENTUTAN AUTONOMOKI JOKA DEZAKEELA JABETZEN EZ BAGARA, DUEN AUTONOMIA APURRA ZAPALDU EGINGO DIOGU.



editoriala

**B**alio preziatua da autonomia. Edozein ikastetxetako hezkuntza-proiektutan itzal handiko hitza. Autonomia bogan dago, eta edozein familiak, eskolak, herrik nahi ditu haur eta gazte autonomoak. Pedagogiaren arloan hitzetik hortzera darabilgun hitza da. Baina, Xabier Tapia psikologo klinikoak aldizkari honetako gai nagusian gogoratzen digun moduan, erabiltzearen poderioz, ez ote gara ariko autonomia hitza gastatzen, husten eta topiko huts bihurtzen?

Eskolari eskatzen zaio haur autonomoak hezteko, iniziatiba propioa dutenak, beren barne-gogoaren arabera jokatu dutenak, askatasunez erabakiak hartuko dituztenak, arduraz jardungo dutenak... Eta bitartean, helduok autonomoak al gara? Iniziatibaz jarduten al dugu? Gure barne-gogoaren arabera jokatzen al dugu? Askatasunez hartzen al ditugu erabakiak?

Autonomo izatea ez da hain erraza. Ez da egun batetik bestera pare bat teknika aplikatuta lortzen den zerbait; baizik eta prozesu luzea da, neketsua eta inoiz amaituko ez dena.

Merezi du, ordea, autonomia jomugan jartzeak, helmuga hori izateak. Ez soilik haurren heziketan, baita irakaslearen eguneroko jardunean nahiz ikastetxeen eta hezkuntza komunitateen funtzionamenduan ere. Autonomo izateak norbere printzipioen arabera jokatzea esan nahi baitu, norbere kontzientziaz jardutea. Hain zuzen ere, horixe du xedeetariko bat Jose Luis Mendoza Nafarroako Hezkuntza kontseilari berriak: “Autonomia handiagoa emanaz, alde batetik, eskoletako hautaketa

demokratizatu nahi dugu, eta bestetik, gure xedea da hezkuntza komunitate osoa murgiltzea planifikazioan eta erabakietan”.

Sarri baina, teoriarik esaten dugunetik praktikan egiten dugunera arrakala egon ohi da, eta kezka dugu ez ote den beste horrenbeste gertatzen autonomiaren kontuarekin ere. Haur eta gazte autonomoak nahi ditugu, baina gero ez al ditugu meneko izatera bultzatzen? Irakasle iniziatibadunak eskatzen ditugu, baina, errealitatean, ez al diegu goitik arau eta muga gehiegi jartzen? Hezkuntza komunitate kontzientziadunak eta printzipiodunak aldarrikatzen ditugu, baina, egiaitan, ba al dute hala jokatzeke inolako eskumenik?

Ezer ez da ezerezetik sortzen. Jaiotzatik dakartza haurrak autonomia zantzuak, hau da, gizakiak berez dakar autonomiaren ernamuna. Baina Myrtha Chokler psikomotrizistak aldizkari honetako gai nagusian azaltzen duen eran, haurrak zenbait momentu jakinetan autonomoki joka dezakeela jabetzen ez bagara, duen autonomia apurra zapaldu egingo diogu. Eta ez ote da gauza bera gertatzen helduon munduan ere? Ez ote dugu dena goitik behera egituratzen? Ez ote gara “batak agindu besteak men egin” filosofiapean bizi? Guk ere ez al diogu batak besteari autonomia kentzen?

Aldizkari honetan ikus daitekeen moduan, badaude bideak teoriarik esaten dugunetik praktikan egiten dugunera gerturatzeko. Aldarrikatzen dugun hori betetzea dagokigu, beraz. Autonomiaren arloan ere, hitzetatik ekintzetara igaro behar dugu, bai haurren heziketan, baita hezkuntza komunitate osoaren kudeaketan ere.

---

**“Ikastola eta eskola publikoa gauza askok lotzen eta batzen ditu. Bereziki euskararen eta euskal kulturaren murgilduriko Hezkuntza Sistema Propioaren aldeko ahaleginak elkartzen ditu. Bi hezkuntza sare horiek dira biharko euskal eskolaren zutabeak eta oinarriak”**

Tasio Erkizia



## NAFARROAKO BESTE HIRU HERRITAN JARRI DUTE ABIAN D EREDUA

Euskararen Legean egindako aldaketek aukera emanda, datorren irailean Nafarroako ikastetxe publiko guztietan indarrean jarri ahal izango da D eredua. Baina, ordu arte itxaron gabe, Zudaireko eskolan behin ikasturtea hasi ondoren egin dute euskarazko eredura jauzia. Urte luzetan administrazioak ukatu egin die aukera hori, baina urritik Haur Hezkuntzan matriculaturiko 19 ikasleak D ereduan ari dira eskolak jasotzen. Antzera gertatu da Lezaunen eta Abartzuzan: Lezaunen 6 ikasle dituzte HHn, guztiek hasi dute D eredua, baita Abartzuzako 12 ikasleek ere.

## ‘BERTSOLARITZA ESKOLAN’ PROGRAMA BERRIRO ABIAN DA NAFARROAN

Nafarroako Gobernuak berriro jarri du abian *Bertsolaritza eskolan* programa Nafarroako hainbat ikastetxetan; aurreko gobernuek laguntzak kendu zizkieten programari, eta azkenean bertan behera gelditu zen. Itzulera honetan 40 ikastetxetan landuko dute, eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoa mila ikasle hartuko dute parte, urriaren 22tik abenduaren 22ra bitartean.



## EUSKARAREN OFIZIALTASUNA ETA IPAR EUSKAL HERRIKO ELKARGOAK ESKAKIZUN

Batera plataformak eta Euskal Konfederazioak deiturik, euskararen ofizialtasuna eta Ipar Euskal Herriko Elkargoaren sorrera eskatzeko manifestazioa egin zuten urriaren 24an Baionako karraketan. Deialdiari erantzunez, 5.000 lagun inguruk egin zuten bat manifestazioarekin, *Euskara hizkuntza ofiziala, Ipar Euskal Herriko Elkargoa* lelopean. Besteak beste, bertan izan ziren Baionako auzapez Jean Rene Etxegarai eta hainbat alderdi politikotako ordezkariak, horien artean PS alderdi sozialistako eta EH Bai-ko kideak. Euskalgintzako eragileek ere babes zabala eman zioten manifestazioari.

2016ko udaberrian Ipar Euskal Herriko 158 herriak bilduko dituen hirigune-elkargoari buruz bozkatu beharko dute herrietako hautetsiek; eta, hain zuzen, manifestazioan hautetsi horiei eskatu zieten Ipar Euskal Herriko herriak batuko lituzkeen elkargo bakarrari baietza emateko “ausardia eta kementa”. Horrekin batera, herritarrei ere egin zieten dei, hautetsi horiek konbentzitzeko: “Herritar bakoitzari dagokio inplikatzeko eta aktiboki parte hartzea gaurdanik hasten den kanpainan”.

Manifestazioa “bide baten hasiera” besterik ez zen izan, Bateraren iritziko. Izan ere, hurrengo hilabeteetan herriz herri ariko dira lanean, hautetsiak elkar-ko bakarraren alde egiteko konbentzitu nahian.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## IKASTOLEN FESTA OSPATU DUTE GIPUZKOAN ETA NAFARROAN

Ikastolen aldeko festak ospatu dituzte urrian zehar Gipuzkoan eta Nafarroan. Lehen hitzordua Gipuzkoako Ikastolen Elkartearekin izan zen. Usurbilgo Udarregi Ikastolak antolatuta, herri horretan ospatu zuten 2015eko Kilometroak festa, ohitura den legez urriko lehen igandean. *Gattunk* lelopean, parekidetasuna, inklusibotasuna eta iraunkortasuna izan ditu ardatz aurtengo ekitaldiak, eta antolatzaileak gustura agertu dira jendearen aldetik jasotako erantzunarekin: “Urte guztian zehar parekidetasunean, jasangarritasunean eta inklusibitatean egindako lan eta ahaleginek fruituak eman dituzte; euskaltzaleek erantzun ezin hobea eman dute”.

Bestalde, hasiera-ekitaldian Juan Mari Torrealdei kazetari eta euskaltzaina omendu dute, “bizi osoan” euskararen alde egindako lanagatik. Bergarako Aranzadi Ikastolari pasatu diote lekukoa, 2016 Kilometroak antola ditzan.

Urriaren 18an, berriz, Nafarroako ikastolekin zen hitzordua, eta milaka lagunek egin zuten bat Baztan Ikastolak Elizondon, Elbeten eta Lekarozen antolaturiko Nafarroa Oinez jaiarekin. Guztiek helburu izan zuten Baztan Ikastolari bultzada ekonomikoa ematea eta euskarari babesa agertzea. Bestalde, Baztan Ikastolaren sorreretatik jardundako 9 irakasle omendu zituzten. Vianako Erentzun eta Lodosa eta Sartagudako Ibaialde ikastolek hartu dute lekukoa hurrengo urteko ekitaldia antolatzeko.



Goian, Baztanen ospaturiko Nafarroa Oinez festa; behean, berriz, Usurbilen, Kilometroen hasiera.



## EL MARTINET-EKO ESPERIENTZIA EZAGUTARAZTEKO LAN-SAIOA EGINGO DA AZAROAREN 20AN ETA 21EAN

Lan egiteko moduagatik nahiz hezkuntzaren gainean duten ikuspegiagatik berritzaile eta erudugarri izan daitezkeen hainbat ikastetxeren esperientzia ezagutarazteko jardunaldiak antolatuko ditu Hik Hasi-k 2015-2016 ikasturtean, bereziki Lehen Hezkuntzan lanean diharduten profesionalei zuzenduta.

Aurkeztuko diren esperientzia horien artean lehena Bartzelonako (Katalunia) El Ripollet herriko El Martinet ikastetxearena izango da. Joan den apirilean *Herri hezitzailea, eskola herritarra* izenburupean eginiko jardunaldietan parte hartu bazuten ere, irakasle asko gehiagoren egarriz geratu zen, eta, beraz, hango esperientzia berriz ekartzearabaki du Hik Hasi-k. El Martinet modu sakonagoan eta gertuagotik ezagutu ahal izateko jardunaldia egingo da azaroaren 20an eta 21ean Donostiako Irakasle Eskolan.

Ostiralez, eskolaren hezkuntza proiektuaren aurkezpen orokorra egingo dute El Martineteko kideek. Larunbatean, berriz, zikloka banatuta (3, 4 eta 5 urte; 6, 7 eta 8 urte; eta 9, 10 eta 11 urte) lan saio espezifikoak egingo dira.

Plazak mugatuak izango dira. Informazio gehiagorako edo izena emateko [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunera jo daiteke, edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.

## OINHERRI EKIMENAK FORMAZIO-SAIOA ANTOLATU DU HEZITZAILEENTZAKO DONOSTIAKO TABAKALERAN

Oinherri egitasmoak hezitzaileentzako formazio-saioa egingo du azaroaren 14an Donostiako Tabakaleran, 09:00etan hasi eta 14:00ak arte. Izan ere, apirilean Donostian egindako *Herri hezitzailea, eskola herritarra* jardunaldietan 5 liburuxka aurkeztu zituen Oinherri, eta horietan jasotako teoriak eta praktikak hezitzaileekin partekatu nahi dituzte orain.

Sarrera orokorraren ondotik, 10:00etatik 12:00etara bi hitzaldi izango dira: *Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik* eta *Parkeak bizi-berritzeko modu berriak*. 12:00etatik aurrera beste bi hitzaldi egingo dituzte: *Nola egin ludoteka parte-hartzailea* eta *Nola egin udaleku parte-hartzailea*. Izena Oinherri-ren webgunean eman behar da: <http://eguz.weebly.com>

OINHERRI egitasmoa 2012an sortu zuten *Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra* izenpean. Bertan askotariko eragileak elkartu ziren, guztiak "haurren aisia eta hezkuntza beste modu batera egin zezaketela amesten zutenak", tartean Hik Hasi egitasmo pedagogikoa.



## 'GORPUTZA MUGIMENDUAN' IZENENKO JARDUNALDIA EGINGO DUTE ORION

Azaroaren 27tik 29ra, *Gorputza mugimenduan* izeneko jardunaldia izango da Orioko haur-eskolan, Nerea Mendizabal psikopedagogoaren eta Daniel Charquero gorputz-adierazpenean adituaren eskutik. *Dantza, sormena eta gorputzaren kontzientzia* izango da lehen eguneko gaia; bigarrenean, aldiz, *Komunikazioa, dantza eta gorputz kontzientziaren autoenpatia*; azkenik, hirugarren egunean *Mugimendua, sormena eta erlajazioa familian* landuko dute. Informazio gehiagorako edo izena emateko, [www.hartueman.com](http://www.hartueman.com) webgunera jo daiteke, edo 667437798 telefono zenbakira deitu.



# HIZPIDE IZANGO DA

HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEAK  
MANIFESTAZIOAK DEITU DITU  
HIRIBURUETAN AZAROAREN 28RAKO  
HEZKUNTZA-EREDU PROPIOAREN ALDE



Hezkuntza Plataformen Topaguneak deituta, manifestazioak egingo dituzte azaroaren 28an Hego Euskal Herriko lau hiribueretan, 2015-16 ikasturtean ere LOMCE Hego Euskal Herriko ikastetxeetan indarrean egongo dela salatzen, eta, horrekin batera, hezkuntza-eredu propioa eskatzeko Euskal Herrirako. “Ez dugu LOMCE nahi eta ez dugu momentuz LOMCE aplikatzen duen Heziberri-rik nahi ere. Guk Euskal Herrirako Hezkuntza Sistema Propioa nahi dugu. Egungo eredu arrotza gainditu eta gure hezkuntzaren gaineko erabakiak guk geuk hartu nahi ditugu, gure ikastetxe eta herrietatik. Horregatik, nekatuta gaude, inposaketei aurre egiten jarraituko badiegu ere, bada garaia gure hezkuntza ereduaren egun eraikitzen jarraitzeko”, aldarrikatu dute antolatzaileek.

Iaz hasi zituen Topaguneak mobilizazioak bi aldarri horien inguruan. Hamaika manifestazio eta informazio-saio egin ziren lau lurraldeetan, baina oihartzun handiena izan zuten Lehen Hezkuntzarako LOMCEk ezarritako ebaluazio-azterketen aurrean eginiko plantoek. Izan ere, hezkuntza-komunitateak antolatu egin ziren ikastetxez ikastetxe azterketa horiek ez egiteko.

HIK HASI-REN  
0-3 URTE ARTEKO  
HEZITZAILEEN  
FORMAZIOAN  
LEHEN PROMOZIOA  
ATERA DA

Hik Hasi egitasmoak 0-3 urte arteko haurren hezitzaileei eskainiriko formazio-zikloa jarri zuen abian 2013an, eta, bi ikasturteren buruan, lehen promozioak bukatu du zikloa. Hori ospatzeko, bazkaria egingo dute formazioaren koordinatzaileek, zikloan zehar hitzaldiak eman dituzten adituek, ikasleek eta Hik Hasi komunitateko kideek azaroaren 28an. Aurretik, diplomak banatzeko ekitaldia ere izango da.

40 lagunek osatu dute 2 ikasturteko ibilbidea. Emmi Pikler eta Loris Malaguzziren teoria pedagogikoen gainean ardazturiko formazio-egitaraua osatu dute horiek, batik bat. Jada abian dira beste bi promozio ere.

KIROL-HEZITZAILE  
IKASTAROA  
ESKAINIKO DU MU-K

Kirol Hezitzaile ikastaroa sortu du Mondragon Unibertsitateak. Bereziki zuzenduta dago eskola kirola, gorputz hezkuntza, kirol hastapena, kirolaren irakaskuntza eta kirol kudeaketan jarduten diren guztiei. Ikastaroa sei hilabetekoa izango da, urtarrilean hasita. Matrikula egiteko eta informazio gehiagorako jo [www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu) webgunera.



800 pertsona inguru elkartu ziren, “Haurren autonomia” izenburupean 0-3 urte arteko haurrekin aritzen diren profesionali bideratuta urriaren 16an Bilbon eta 17an Donostian egin ziren jardunaldietan. Xabier Tapia psikologo klinikoa, Myrtha Chokler psikomotrizista eta psikologiako doktorea, Teresa Godall Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta Alfredo Hoyuelos NUPeko irakaslea eta Iruñeko haur-eskoletako tailerista aritu ziren hizlari lanetan, autonomiaren itsaso zabalean argi izpi batzuk margotu nahian.

# GAIA: HAURRAREN AUTONOMIA

Norbera izateko egiten den ibilbidea

## Mendekotasunik gabe ez dago autonomiarik

“Umeek egin beharrekoak, eurek bakarrik, laguntzarik gabe egiteko gaitasuna”. Hala definitu izan da sarri haurraren autonomia. Definizio hori, ordea, hankamotz geratzen da adituen esanetan, askoz ere sakonagoa eta konplexuagoa delako autonomiaren esanahia. Barne-gogoarekin, askatasunarekin, eraikuntza subjektiboarekin, harremanetan oinarritutako prozesu psikikoarekin, plazerarekin, norbere kabuz pentsatzeko gaitasunarekin, mundura irekita egotearekin, erabakiak hartzearekin... lotzen dute autonomia Xabier Tapia psikologo klinikoak eta Myrtha Chokler psikomotrizistak.

Pedagogia eta hezkuntza arloetan itzal handiko hitza da autonomia Tapiaren irudiko, baina beste hainbat kontzeptu bezalaxe, errepikatzearen poderioz, edukiz jantzi beharrean, gastatzen, husten eta topiko huts bihurtzen ari ote den susmoa du. “Autonomia modan dago, oso ondo ikusia balio individual bezala eta gizarteak sutsuki eskatzen dio eskolari ahalik eta autonomoen eta azkarren hezi ditzan umeak”, azaldu zuen *Haurraren autonomia* izenburupean urriaren 16an Bilbon eta 17an Donostian egin ziren jardunaldietan.

Egitan, baina, zer da autonomia? Zer dago hain preziatua

den kontzeptu horren muinean? Zer sartzen da jokoan haurraren autonomiaz ari garenean?

Etimologiari erreparatuz, norberaren arauen araberako jardura esan nahi du autonomiak. Kasu horretan, autonomiaren muina ez litzateke portaera; araua edo legea baizik, norberarena, barneratutakoa, psikikoa. “Etimologiak dioenez, garrantzitsuena ez da era autonomoan jokatzea, bai ordea barne askatasuna eta autonomia, gero portaera bihur litekeena ala ez”, dio. Baina, jatorrizko esanahia galdua, Tapiaren hitzetan, gauzak norberak bakarrik egiteko gaitasunari esaten zaio autonomo izatea, garrantzia barne-askatasunari baino gehiago, portaerari emanaz. Hala, landu beharreko trebetasun zerrenda luzeak egin ohi dira, batez ere errepikapenez ikasten direnak: bakarrik janztea eta eranzea, kremlera igo eta jaistea, botoiak lotu eta askatzea, motxilatik gauzak ateratzea eta sartzea... Tapiaren arabera, ordea, autonomia ez da ikasketa bat, ez da kanpotik irakasten den zerbait, ezta entrenamendua edo ariketa ere, ez azturaz edo ohituraz barneratzen den zerbait; baizik eta, etimologiak dioen bezala, barne-prozesu bat da, harremanetan oinarritutako prozesu psikiko bat.

Mendekotasunetik autonomiaranzko bidean egiten den prozesu luze batean txertatu behar da autonomia, Tapiaren ustez. “Giza garapena autonomia lortzeko egin beharreko

# GAIA: AUTONOMIA

Norbera izateko egiten den ibilbidea

prozesu luze, neketsu eta inoiz burutu ezinaren historia da”. Eta adituak gaineratzen duenez, autonomia lortzea ezinezkoa da txikitako mendekotasunik gabe. Izan ere, psikologoak esplikatu bezala, gizakia harremanetarako programatuta dago, ezinbestean programatuta ere, heldugabeko garuna izanik, bere gisa bizirauteko gauza ez denez, beste gizaki batzuen menpe baitago erabat. “Biologiak inposatutako heldugabetasun eta mendekotasun erradikalek bera eta beste gizaki baten arteko harremanetara behartzen dute ezinbestean gizaki-kumea. Harremana ez da ez on eta ez txar, ez da lantzea komeni den balio edo aukera bat, bigunkeria, onkeria edo samurtasun bihozkada bat; harremana, bada eta kito”.

## Autonomia zantzuak, jaiotzatik

Tapiak bezalaxe, Choklerrek ere elkarri estuki loturik ikusten ditu autonomia eta mendekotasuna. Bere esanetan, ez dira bi osotasun independente, unitate bereko elementu kontrajarriak baizik. Horrexegatik dio autonomia dagoen lekuan, segur aski, mendekotasuna ere egongo dela. Haur jaioberriak mendekotasun izugarria duen arren, zenbat gauzatarako eta hainbat momentutan sekulako autonomia erakusten duela dio Choklerrek: “Adibidez, 7-8 egun dituenarako begirada interesatzen zaion zerbaitea bideratzeko ahalmena du. Horrexegatik, ulertu behar dugu autonomia ezingo litzatekeela garatu ernamuinik ezean, ezer ez baita garatzen ezerezetik”.



Xabier Tapia eta Myrtha Chokler.

Emmi Piklerren esanei jarraiki, Choklerrek jardunaldian azaldu zuenez, umea oso txikitatik eraikuntza subjektiboa egiten hasten da indar handiz, eta bere burua besteengandik bereizi egiten du. Horretantxe ikusten du Choklerrek jarduera autonomoaren lehen arrastoetariko bat. Umea, pertsona eta gizartea ulertzeko kultura batek duen moduaren arabera, ordea, era bateko edo besteko heziketa bideak jarriko ditu martxan: “Jaiotzen denetik haurra erabat mendekoa dela ikusten badugu, bereziki helduaren mendekotasuna duela uste badugu, autonomia zantzuaren bat izan dezakeela eta momentu jakinetan autonomoki jarduteko gai dela ohartzen ez bagara, duen autonomia apurra zapaldu egingo dugu, ez diogu autonomia horri tokirik egingo eta ez ditugu autonomia hori garatzeko baldintzak sortuko. Horrexegatik sekulako erronka daukagu haurraren ekimenetan ageri ohi diren autonomia zantzu horiek identifikatzen, nahiz eta oso txikiak izan. Gainontzean, oso zaila izango baita autonomia garatzen laguntzea”.

Haurrak subjektu dira jaiotzatik, Choklerren esanetan, ekintza-subjektu dira eta ez soilik erreakzio-subjektu. “Haurrak ez dira estimuluen aurrean erantzuten duten subjektu pasiboak, baizik eta euren ekimenez jarduteko gai diren subjektu aktiboak”. Haurraren ikuspegi hori babesteko Henri Wallon-en esaldi bat ekarri zuen gogora jardunaldian: “Haurra, jaiotzatik, mendeko den mundu horretara irekirik dago”. Baita Donald Winnicott-en beste bat ere: “Pertsona bat bera izan dadin, erreakzioz egiten diren ekintzen aurrean, norbere inizatibaz egindakoak gailendu behar lirateke”. Horregatik, hezitzaileen eta, oro har, helduen egitekoa hasieratik ekimenez beterik dauden haurrak hezteko dela gaineratu zuen: “Iniziatiba duten haurrak, euren kabuz pentsatzeko gai direnak, solidarioak, euren buruaz seguru daudenak eta bestearekin ere seguru sentitzen direnak... Azken batean, haur autonomoak hezteko dagokigu”.

Izan ere, Choklerren esanetan, autonomiak zera esan nahi du: gai izatearen barne-sentimendua edukitzea, egin nahi dena aukeratzeko gai izatea eta erronka berrien aurrean irrika sentitzea; eta horrekin batera, norbere auto-ebalua-zioa nahiz egoerarena egiteko gai izatea. “Horrek, ezinbestean, norbere buruaren kontzientzia positibo bat edukitzea esan nahi du, eta, gainera, haurrak egindakoa helduak errekonozitzen badu, haurrak pertsona baliogarria eta eraginkorra dela sinetsiko du. Eta horrek guztiak gizarteratzea erraztuko dio, bere buruarengan konfiantza duelako eta besteak ere berarengan konfiantza dutela sentitzen duelako. Ondorioz, komunikatzeko gogoia izango du, baita egiten dakien hori guztia helduari erakusteko ere”.

# Autonomiarako bidean, lau etapa

**H**astapenean haurrak duen mendekotasun erradikal horretatik autonomiarako bidean lau etapa nabarmendu behar direla azaldu zuen Tapiak jardunaldian:

## 1. Lotura edo atxikimendua

Psikologoaren esanetan, autonomo izan baino lehen, heldugabetasunak edo mendekotasunak beste norbaitekin gorputzezko eta emoziozko lotura berezi batera bultzatzen du haurra: atxikimendura, hain zuzen. Haurra jaiotzerako prest dago gorputzezko eta afektuzko harremanak izateko. Tapiak gaineratzen duenez, lotura afektibo hori zenbat eta estuagoa izan, orduan eta sendoagoa izango da gero haur horren identitatea eta autonomia.

## 2. Bereizketa, urrunketa, banaketa

Autonomiarako bidean, helduaren eta umearen arteko lotura sendo hori arinduz joaten da pixkanaka. Hala, bigarren urtearen hasiera aldera, motrizitatearen heldutasuna lagun duela, umeak autonomiarako irrika eta gogo handia izaten ditu, eta helduengandik urruntzeko grina pizten zaio. “Dena den, urrundu bezain pronto, itzuli egiten da berriro bere helduleku afektiboengana. Banaketa-prozesuan oso nabarmenak izaten dira gorabeherak eta aurrera-atzerakoak”.

Psikologoak azaltzen duenez, etapa horretan distantzia fisikoaren nahiz psikikoaren kudeaketan dago gakoa. Aldi horretan, distantzia fisiko eta psikiko handi samarrak lortu arren, ez du esan nahi behin betikoak direnik; eta atzerako joerak ugaritu ere egin daitezke distantzia sendoagoak lortu aurretik: “Bi urteko hainbat haurrek adibidez, ikasturte hasierako egokitze prozesua ‘ondo’ gainditu arren, sarritan izaten dituzte urte osoan zehar, hala-moduzko ‘atzerako’ joerak. Helduek askotan gaitzetsi egin ohi dituzte jarrera

horiek. Baina gaitzetsi eta zuzendu beharreko borondate falta, mimokeria edo mainak baino gehiago, barne-prozesu psikikoen gorabeherak izan ohi dira. Oso arruntak dira, eta zenbait kasutan, desiragarriak ere bai”.

Banatze bide horretan, hainbat elementu lagungarri eta euskarri topatzen ditu haurrak, Tapiak jardunaldian esplikatu zuenez. Horietako batzuk haurraren baitako gogoaren araberakoak izaten dira. Hasteko eta behin, haurraren eszena psikikoan pertsona garrantzitsuenen barne-irudiek gero eta protagonismo handiagoa izango dute. Bigarrenik, haurrak motrizitate helduagoa izango du, bere autonomiarako bidean oso garrantzitsua izango dena (eskuen manipulazioa, oinez ibiltzea, esfinterren kontrola...). Eta, hirugarrenik, hizkuntza eskuratuz joango da, hau da, absente dagoena presente egiteko gaitasuna eskuratuko du eta, bien artean distantzia egon arren, helduarekin komunikatzeko gai izango da. “Hiru gaitasun horiek izango dira euskarririk nagusienak banaketa-prozesua egiteko garaian, eta ez banaketan errepikapenak eta errepikapenak”.

Beste elementu lagungarri batzuk ere jasoko ditu haurrak ingurutik banaketa bide horretan; hala nola, onarpena, poza, harrotasuna, gogobetetasuna eta abentura edo lorpen berrietarako gonbitea.

Tapiaren aburuz, barne irudiez eta motrizitateaz gain, haurrek beren nortasuna garatu ahal izateko beste modu eraginkor bat “ezetza” adieraztea da, ahoz zein mugimenduz. “Umeen autonomia-grinaren lehen ageriko jokabideak ezezkoaren eta kontra egitearen eskutik etortzen dira ia beti”. Psikologoak gaineratzen duenez, umeak ezetz esaten edo kontra egiten hasten direnean, helduengandik bereizteko eta urruntzeko gogoaz eta grinaz ari dira. “Garai honetan haurrek ‘ez’ diotenean, ‘ni neu’ esan nahi izaten dute. Ez dago autonomo bilakatzerik, helduekin konfliktorik eduki gabe”.

## 3. Banakotasuna eta indibiduazioa

Tapiak esplikaturako eran, 3 urteren bueltan sendotzen da banatzeko ahalmena edo banakotasuna, haurra “ni” izenordea erabiltzen hasten denean, bere burua besteengandik bereizten duen seinale izaten baita hori. “Ni” esaten hasteak ez dauka zerikusirik irakastearekin, ikastearekin, errepikapenekin, ohiturekin, azturekin... aurretik bizi izandako prozesu psikiko eta gorputzezko baten ondorioa eta emaitza baino ez da, hau da, helduaren eta haurraren artean ondo burututako lankidetzaren emaitza”.

# GAIA: AUTONOMIA

Norbera izateko egiten den ibilbidea

“Ni”-aren barne-sentimendua sendotzen duten bidelagunak ezagunak izan ohi dira hezitzaileen eguneroko jardunean: bat-bateko irudimen-jolaserako gaitasuna; bat-bateko motrizitate askea zein bideratua; bat-bateko grafismoa, askea zein bideratua; agresibitatea bideratzeko edo sozializatzeko gaitasuna; edota kalitatezko hizkuntzaren gaitasuna. Era berean, garai horretan ohikoa izaten da identitate sortu berriaren krisia. Tapiak azaldu bezala, ezinegona, aztoramena, suminkortasuna edota esfinter-kontrolaren atzerapena erakutsi ohi ditu haurrak.

## 4. Identitatea

Autonomiarako prozesuan laugarren urratsa “ni”-aren zakua betetzen hastea izan ohi da, Tapiaren hitzetan. Izana, bizitzan zehar topatutako hainbat eta hainbat “bidaide erakargarriekin” egiten den identifikazioari esker osatzen da, psikologoaren ustez. “Identifikazio askoren ondorioa da identitatea, originala, bakarra, norbera eta propioa. Urte askotako lanaren ostean, hainbat eta hainbat identifikaziotan oinarrituta, nerabezaroan finkatzen den identitateaz ari gara azken batean”. Baina, Tapiak adierazitako moduan, kasurik onenetan ere, autonomia horrek gorabehera eta atzera-aurrera handiak izango ditu hil arte, autono-

mo bilakatzeko prozesuak ez baitauka amaierarik.

Autonomiarako bidean gozamena da haurraren jardueraren bultzatzaile nagusia, Tapiaren esanetan. Jardute hutsaren gozamenaz mintzo da aditua, ez kanpotik jasotako sariak eman dezaketen gozamenaz: “Ez dago oso aditua izan beharrik haurrek bere baliabide propioak erabiliz, bere kabuz jarduten dutenean bizi duten gozamenaz jabetzeko. Barneratutako lotura afektibo sendoen seinale izaten da beti gozameneko jokaera hori”.

Tapiak gaineratzen duenez, haurrari eskaintzen zaion arreta eta afektuaren adierazle izan ohi da haurrak bere buruarekin eta bere gorputzarekin duen harremana; gurasoak berarekin nola, haurra bere buruarekin hala. “Haur batek bere pertzepzio, motrizitate eta kognizio jarduerekin biziko duen gozamena helduek haurraren jardura horiei eskaini dieten arretaren neurrikoa izango da. Arreta diot eta ez estimulazioa. Osagarri afektiboa, kognitiboa eta motorra batera badoaz ere, gozamena da jardunaren bultzatzaile nagusia eta ez helduaren alde bakarreko estimulazioa. Finen, lehen jardura autonomoa, era autonomoan gozatze-ko gaitasuna dela esango nuke, eta ez jarduteko gaitasuna bera”.



# Autonomo izateko hainbat gako

**M**endekotasunetik autonomiarako bidea egiteko orduan, kontuan izan beharreko hainbat gako azpimarratu zituen Myrtha Choklerrek jardunaldiko hitzaldian:

## Helduaren jarrerak eta jokatzeko moduak barneratzea

Tapiak aipatzen zituen haurraren barne-irudien sinonimo gisa, Choklerrek azaldu zuen, haurra autonomo izan dadin helduaren jarrerak eta jokabideak bere barnean txertatuta izan behar dituela. Alegia, psikomotrizistaren esanetan, helduaren jarduteko moduak arrastoak uzten ditu haurraren gorputzaren nahiz garunaren memorian. Hasieran haurrak rol bat jokatu du eta helduak beste bat (adibidez, umea jantzean edota haurrari jaten ematean), baina pixkanaka, helduaren jarrera eta jokabide horiek barneratuz doan heinean, umeak hartuko ditu bere gain bi rola, dagoeneko helduaren rola barneratua duelako (bere kasa jantziko da, bakarrik jateko gai izango da...): “Autonomoa izateak haurrak heldua bere barnean sartzeari esan nahi du, eta ez mekanikoki gaitasun bat ikastea. Horrek haurrari ahalbidetuko dio helduarengandik banatzea. Hala heldua alden arren, haurrak bere barnean sentituko du, heldua bere egin duelako eta bere kasa egoteko gai izango da”.

## Haurrak duen heldutasunaz jabetzea

Duen heldutasunaren arabera izango da autonomo haurra, eta beraz, Choklerren aburuz, heldutasun hori onartu behar zaio, horrek emango baitio gaitasuna hainbat kompetentzia izateko eta beste zenbait ez. Baina “heldutasuna” aipatzean, umeak “hemen eta orain” duen heldutasunaz ari da, ez “izan beharko lukeen heldutasunaz”, ezta “hemendik hila betera izango dituen gaitasunaz” ere, horrela soilik igaro ahalko delako mendekotasuna nagusitzen den egoeretatik autonomia nagusitzen denetara. “Inor ezin da autonomo izan egitea proposatzen dioten hori egiteko nahikoa heldu-

tasun ez badu; nahikoa heldutasun biologiko, emozional eta kognitibo”.

## Haurrak plazera eta gozamena bizitzea

Choklerren arabera, plazera funtsezkoa da haurra autonomia eskuratuz joan dadin. Izan ere, plazerak nerbio-sistema osoa aktibatzen du batetik, eta bestetik haurraren gogoia, nahia, borondatea eta aurrera egiteko nahia aktibatzen ditu. “Plazeraren laguntzaz haurrak itxaron egiten du, egoera bat imajinatzen du, egoera hori behin eta berriz desiratzen du...”. Choklerren esanei jarraiki, nahi izatea, nola egin jakitea eta egin ahal izatea ezinbesteko baldintza dira haurra autonomo izan dadin egoera jakin baten aurrean.

## Erabakitze eta aukeratzeko gai izatea

Autonomiaz jarduteko haurrak bere testuingurutik programa bat egiteko beharreko informazioa ematen dioten elementuak aukeratu behar ditu, hau da, informazio garrantzitsua hautatzeko eta prozesatzeko gai izan behar du. Horrela soilik izango baita egin nahi duena egiteko gauza. “Haurraren autonomiaz ari garenean, garrantzitsua da konturatzea haurra erabakitze eta aukeratzeko delako eta egoeraren kontrola duela, eta ondorioz, bere ekintzen ondorioa aurreikus dezakeela.

## Segurtasun afektiboa edukitzea

Choklerren iritziz, autonomo izateko emozionalki ziur sentitzea ezinbestekoa da, horrek haurrari ezaguna denaren edota zailtasunen aurrean aktibatzen diren emozioak neutralizatzea ahalbidetzen baitio. “Babesten duen helduaren alboan haurrak ez du antsietaterik izango, lasai egongo da eta motrizitatea ondo egituratua izango du. Horrexegatik, ingurunean gertatzen dena behatu eta neurtu ahalko du, interesatzen zaiona bereganatzeko eta horrekin nahi duena egiteko”.

## Mugitzeko askatasuna izatea

Choklerrek adierazi bezala, mugitzeko gaitasuna ez da “hemen eta momentu honetan” eskuratzen, baizik eta jaiotzatik poliki-poliki eraikiz joan beharreko zerbait da, “gorputza bitarteko izanik, lasai egoten ikasteko eta haurrak berak egin dezakeela sentitzeko. Baina proba egin eta ezin duela ikusten badu, egiten ari den hori egiteari utziko dio eta beste zerbaitetan hasiko da”.

## Testuinguru egokia edukitzea

Haurrak autonomiarako bidea urra dezan, inguruneak ere egokia izan behar du psikomotrizistaren hitzetan: espazio segurua, objektu egokiak, arropa erosoak, toki goxoa eta kalitatezkoa, arriskurik gabea...

# Mugimendu asketik hasten da autonomia

Umeen mugimenduak nolakoak diren aztertzeko, testuinguruak haurren mugimenduan zer-nolako eragina duen ikertzeko, eta mugimendu askearen garrantzia irudi bidez gurasoei azaltzeko *Mugimendu librea eta errealtatea* izeneko dokumentala osatu dute Iruñeko haur-eskolek. Teresa Godall proiektuaren bideratzaileak eta Alfredo Hoyuelos lanaren egileak aurkeztu zuten dokumentala jardunaldian. Godall Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea ere bada eta Emmi Pikler-en gainean tesia egin du; Hoyuelos berriz, NUPeko irakaslea da, Iruñeko haur-eskoletako tailerista ere bai, eta Loriz Malaguziren gainean tesia egin du.

“Jaioberriak gaitasunak ditu” Emmi Piklerren esalditik abiatuz, autonomia kontzeptua nola ulertzen duten azaldu zuten Godallek eta Hoyuelosek aurkezpenean. Hain zuzen ere, haurren gaitasunez gehiago hitz egin zuten autonomiaz baino, iruditzen baitzaie 0-3 adin tartean autonomiak soilik motorra izan behar duela: “0-3an ez dago autonomia emozionalik, ezta autonomia linguistikorik ere, ez dago autonomia sozialik... 0-3an haurra irakurtzeko gai bagara soilik existituko da autonomia. Haurrak gorputzean, begiradan, keinuetan, harremanetan... erakusten dituen gaitasunak irakurtzeaz ari naiz. Eta, horretarako, haurrekin elkarrizketan aritzeko prest egon behar du helduak, haurrari itzaroteko gai izan behar du eta hark zer esango dion zain egoteko gauza. Eta orduan soilik hitz egin ahalko dugu autonomiaz”, argitu zuen Godallek. Baina ezaugarri horietaz gain, haurrak autonomoki mugitzeko gaitasuna eskura dezan kalitatezko testuinguru bat ere ezinbestekoa dela gaineratu zuen, hezitzailea bezalaxe espazioa ere erreferentziazko beste elementu bat baita haurrarentzat. Autonomia motorraz hitz egin nahi izan zuen Godallek, haur guztiak direlako autonomo motrizitatean. Izan ere, pertsonak jaiotzatik programatuta dakarren zerbait da hori eta bere kasa ernetzen da, baldin eta espazioa, denbora eta haurrak helduarekin dituen harremanak kalitatezkoak badira. “Haurrak bizitzen dituen esperientzien bidez eraikitzen

du bere ezagutza. Horrek esan nahi du haur-eskola batean haur bat hartzen dugunean bere esperientziaren gaineko informazioa eduki behar dugula, hau da, haur horrek duen autonomiaren jakitun izan behar dugula”.

## Espazioaren garrantzia

Dokumentala ikusi osteko galdera-erantzunen tartean, haur-eskolako ingurunea antolatzeko hiru aholku nagusi eman zituen Godallek. Hasteko eta behin, haurrek gauza guztiak eskura eduki behar lituzketela adierazi zuen. Adituaren esanetan, ordea, horrek ez du esan nahi gauzak “mutur aurrean” jarri behar zaizkienik umeei, ezta gauza horiek eskuratzeko haurrek inolako mugimendurik egin behar ez dutenik ere. Hala, adinaren arabera, objektuak gertuago edo urrunago, altuago edo baxuago jartzeko gomendatu zuen.

Bigarrenik, Godallen esanetan, testuinguruak eta haur-eskolako giroak haurrari bere burua bere kasa asebetetzeko aukera eman behar lioke. Reggio Emiliako testuinguruak ekarri zituen gogora. Izan ere, espazio mota horiek irekiak dira, eta haurrak bere interesen arabera, batetik bestera, kanpotik barrura, goitik-behera... mugitzeko aukera du, eta bide batez, baita era askotako esperientziak bizitzeko ere. Hirugarrenik eta azkenik, haurrak berak bere kabuz gauzak egiteko, bizitzeko eta ekiteko aukera izan behar luke espazio horretan, adituaren arabera.



Alfredo Hoyuelos eta Teresa Godall.



## GAIA: HAURRAREN AUTONOMIA



## Pseudoautonomia

Autonomiaren ifrentzua litzateke pseudoautonomia edo autonomia faltsua Myrtha Chokler psikomotrizistaren arabera. Judith Falk Pikler Loczy-ko zuzendari ohiaren definizioari erreferentzia eginez azaldu zuen kontzeptua jardunaldian. Definizio horren arabera, pseudoautonomia litzateke norbere inizatibaz sortzen ez den jarduera. “Badakigu haurrek helduen poza euren bailitzan bizitzen dutela. Ezinean eta beldurrez izan arren, haurrak bi urrats ematen dituen heldua poztu egiten bada, haurra helduari poza eragiten saiatuko da, eta nola edo hala, bi pauso horiek ematen”. Hala, Choklerren esanei jarraiki, momenturen batean haurrak berari zer gertatzen zaion jakiteko gaitasuna galduko du, heldua sentitzen ari dena izango baitu barnean txertaturik. “Kasu horretan, —ezinean eta beldurrez bi pauso ematen ari delarik—, baliteke haurra ziurgabe sentitzea, baina pentsatuko du horixe dela heldua alboan izateko modu bakarra. Hala, haurrak zenbateraino gaizki sentitzen den jakiteko gaitasuna galduko du. Izan ere, haurra zailtasunean egoteak helduari plazera ematen dio eta haurrak bere plazerarekin nahasten du helduarena. Haurrak zera barneratzen du: ‘Nik sufritu beharrak daukat besteak plazera senti dezan’. Beraz, horrenbestearainoko beharra baldin badauka bestearen plazera ikusteko, bere kabuz pentsatzeko eta jarduteko

ahalmena galtzen du”. Choklerrek erantzen duenez, horrek guztiak gehiegizko eskakizuna sortzen du haurraren, eta era berean, “gainegokitze” deituriko mekanismoa eragiten du, hau da, haurra ez da errealitatera aktiboki egokitzen, baizik eta etengabe alerta egoeran dago zer gertatuko ingurunean, eta behartuta egiten du egokitzapena. “Gaur egun badakigu gainegokitzapena estres kronikorako biderik zuzenena dela. Eta egunetik egunera haur gehiago ikusten ditugu estresatuta, gehiegizko eskakizun eta gainegokitzapen horien ondorioz”. Psikomotrizistaren hitzetan, horrek guztiak haurraren sekulako ezgaitasun, ziurgabetasun, mendekotasun, beldur eta arrisku sentsazioa eragiten du, eta, gainera, horrelako kasuetan haurrak uste izaten du inoiz ez duela lortuko helduek berak lortzea nahi dutena. Aldi berean, sozializazio prozesurako izugarriko oztopoa da hori, Choklerren arabera. “Haurra etengabe kanpoan gertatzen denari adi egongo da heldua asebate nahi duelako. ‘Zu gustura bazaude existitzen naiz ni’ esango du haurrak bere baitarako. Helduak berriz zera sinetsaraziko dio umeari: ‘Nik nahi dudana egiten baduzu eta pozik uzten banauzu, maiteko zaitut, bestela ez’”. Jokabide horrek guztiak gaur egungo patologia nagusienetako bat eragiten dutela uste du Choklerrek: “Nortasun hutsalak egituratzen ditu, kanpoko estimulu bila, etengabe bere burua erakutsi beharra daukaten pertsonak, eta ilusio faltsuz bere burua eraikitzen dutenak, pixkanaka identitatea erabat galdu arte”.



“Hezkuntza-komunitateari autonomia handiagoa eman nahi diogu; heldutasunez tratatu nahi dugu”

# ELKARRIZKETA: JOSE LUIS MENDOZA

## NAFARROAKO HEZKUNTZA KONTSEILARIA

Nafarroako Gobernua osatzen duten lau alderdien artean 38 hezkuntza-akordio adostuta ekin dio Mendozak Hezkuntza Departamendua zuzentzeari. Nahi besteko aurrekonturik ez izan arren, hamaika erronka ditu aurrean.

**Irakaskuntzan 40 urteko esperientzia izanik sartu zara Gobernuan. Uztailaren 23an hartu zenuen kargua. Zer moduzkoa izan da hasiera?**

Departamentua alde aurretik ezagutzen nuen. Hori alde batetik, eta bertze aldetik, aurreko arduradunek egin ziguten transferentzia politikoki nahiko zuzena izan zen, moduetan formala. Dena dela, ikuspuntu eta helburu erabat ezberdinekin gatoz gu.

Gauza bat da gobernu-aldaketa, baina gero egunerokoan aurrera jarraitu behar duzu. Are gehiago Hezkuntza Departamentuan, irailaren lehenengorako guztiak martxan egon behar baitu. Beraz, aurreko taldeko batzuk mantendu ditugu. Hau ez delako XIX. mendeko kontu bat, non gober-

nua aldatzen den bakoitzeko guztiak etxera joaten diren. Hala, bertzerik gabe, ikasturte berriari ekin genion normaltasun osoz. Orain, planifikazio bat eskuartean dugularik, gauzak egitea dagokigu.

**Hiru hilabeteko epean kokatzeko tartea izan duzue, beraz. Hiru urte eta erdi dituzue aurretik. Zein dira, benetan, zuen erronkak legealdi honetarako?**

Gobernu honetan, Nafarroan lehenengo aldiz, lau formazio politikoren arteko akordioa lortu dugu. Hezkuntza arloan, 38 erronka konkretu eta hainbat printzipio adostu ditugu eta horiek markatzen dute gure norabidea. Erronka eta konpromiso

bakoitzari egutegia jarri berri diogu, dena batera ezin baita egin. Laster aurkeztuko diegu alderdiei eta horren arabera ekingo diogu lanari. Baina hor dugu Damoklesen ezpata ere: aurrekontua, hain zuzen.

Aurrekontuen arabera eta ditugun konpromisoei jarraiki jardungo dugu. Esate baterako, ikastetxe berriak egiteko dugun konpromisoari heldurik, dagoeneko Sarrigurengo eraikinaren bigarren fasean sarturik gaude. Era berean, Buztintxurin ere eraikin berri bat egitera goaz. Hori dago akordioetan jasota eta hori betetzea da gure xedea.

**38 akordio asko dira, ordea. Batzuetan jarri behar izaten da indarra. Zein azpimarratuko zenituzke?**

Gure erronka nagusia hezkuntza publikoaren aldeko konpromisoa betetzea da. Ez dugu kontzertatua baztertzen, baina osagarri moduan ikusten dugu. Horren barruan, hezkuntza komunitatearen balioa eta rola aldatu nahi dugu. Autonomia handiagoa

eman nahi diogu eta heldutasunez tratatu nahi dugu. Gure lehen egitekoetako bat eskoletako zuzendaritzak eraberritzea izango da. Orain arte, zenbait kasutan, bazirudien zuzendaritzak Departamentuaren enbaxada moduko bat zirela, hau da, Gobernuaren ordezkari. Hortaz, autonomia handiagoa emanaz, alde batetik, eskoletako hautaketa demokratizatu nahi dugu, eta bestetik, gure xedea da hezkuntza komunitate osoa murgiltzea planifikazioan nahiz erabakietan. Hori esparru guztietan: bai ikastetxe mailan, bai herri mailan eta baita politika diseinatzerakoan ere.

Gero gobernu-erronka konkreituak datoz. Alde batetik, aurrez aipatu bezala, eraikinak oso inportanteak dira, krisia dela medio edo krisia dela aitzakia, nahiko zaharkituta baitaude batzuk. Horrekin batera, hezkuntzako langileek — irakasleek nahiz beste profesionalek — errekonozimendu publikoa izatea lortu nahi dugu. Horrek badu alde ekonomikoa, 2012ko murrizketak indarrean daudelako

soldatei, ratioei, irakasleen ordutegi... dagokienez. Horri ere heldu nahi diogu, konpromisoetan jasota baitago eta gure lehentasunetako bat baita. Aurrekontua arazoa izan arren, erronka horiek ezin dira egun batetik bestera lortu. Legegintzaldi osoa daukagu horretarako.

**Autonomia diozunean, zentraliziotik deszentralizaziora jotzeaz ari zara?**

Nik irakasle moduan ikusi dut zerenolako murrizketak egon diren ikastetxeen autonomian. Iruditzen zait aurreko Gobernuak oso konfiantza eskasa zuela hezkuntza komunitatearengan. Are gehiago irakasleengan, eta zer esanik ez D ereduko irakasleengan. Horri buelta eman nahi diogu.

**Hezkuntza komunitatearengan konfiantza izatea aipatzen duzu.**

Gobernu honetan ez dut uste ahalguztidunak gaudenik, pertsonak gara eta akatsak izango ditugu. Baina uste dut



merezi duela askatasunez jokatzeko eta konfiantza izatea bai gure taldean, bai hezkuntza komunitatean, helduak garelako guztiok ere.

**PAI Ingelesa Ikasteko Programa delata dezenteko zurrunbiloa sortu da. Zuek Gobernura iristerako aurtengo ikasturtea zehaztuta zegoenez, bere horretan jarraituko du. Baina datorren ikasturteetik aurrera zein da zuen asmoa?**

2015-1016 ikasturtea 2015eko otsailean hasten da matrikulazioarekin, eta ia-ia 2015eko ekainean ixten da izendapenekin. Beraz, horretan eskua sartzea delirio bat izango zatekeen, hankaz gora jarriko baikenukeen hezkuntza-sistema osoa. Baina PAIren kontua ere akordioetan sartuta daukagu eta Gobernura iritsi bezain pronto heldu genion gaiari. Gure lehen egitekoa PAIren ebaluazioa egitea izango da eta horretan ari gara.

**Zer ari zarete aztertzen PAIren ebaluazioan?**

Edozein hezkuntza-programa martxan jartzeko, lehenik eta behin gogoeta bat behar da. Ondoren gogoeta hori paperean islatu behar da; gero esperimentalki jarri behar da hainbat zentrotan, eta horren ebaluazioa egin. Azkenik, emaitzak positiboak badira, dagoen eskariaren arabera edota hobetutako plangintza baten arabera, orokortu behar da programa. PAIren ibilbideari erreparatuz gero, konturatzeko zara bat-batean martxan jarritako proiektua dela, baina ez duela inolako euskarrik. Soilik foru agindu bat dago, ikastetxe batek PAI ezartzeko zein baldintza bete behar dituen zehazten duena. Oinarriak ez duenez, ondorioa izan da ikastetxe bakoitzak bere PAI propioa duela.

Kezka bat badugu: PAIren kasuan nola bermatzen dute irakasleek ingelesaren ezagutza? Ez da gauza bera ingelesean murgiltzea Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan edota Haur Hezkuntzan, eta horretan sekulako inprobisazioa egon da. Orain PAI programari zein irtenbide eman aztertzen ari gara, baina ez soilik horri, baizik eta orokorrean ingelesa hezkuntzan txertatzeari. Adibidez, EAEn duten hirueleko ere-

du ari gara aztertzen. Beti dago ongi inguruan zertan ari diren ikustea. Horrek ez du esan nahi guk hori ezarriko dugunik, baina hainbat esperientzia ezagutu nahi ditugu gure hezkuntza-sisteman ingelera integratzeko eredu on bat egituratzeko.

**Edozein kasutan, ikasle eleaniztunak sortzea duzue xede.**

Bai, baina horretarako ez dugu behar PAI bezalako programarik. Egiteko horretan guri bereziki interesatzen zaigu euskaraz zer-nolako tokia izango duen aztertzea. Izan ere, PAIa, Nafarroako presidente ohiak aitortu zuen moduan, euskarari muga jartzeko sustatutako zerbait izan da.

**Aurreko legealdiaren amaieran onartu zen Euskararen Legearen arabera Eremu Ez Euskaldunetan D eredua eskaintzea. Horretan ari zarete?**

Bai. Aurreko legegintzalditik indarrean dago Nafarroako edozein tokitan D ereduan ikasteko aukera. Baina beti daude konpondu beharreko alboondorioak. Esaterako, gaztelaniako irakasleekin zer egin. Aurten Abar-tuzako eskolan hasi gara D ereduarekin. Han ez dugu arazo hori izan. Bi irakasle zeuden, bat eskolak euskaraz emateko gaitasuna zuena eta bestea ez. Baina beste hori aurten jubilatzen zen, eta beraz, plaza hori euskarazko profilarekin aterata konpondu dugu auzia. Orain Zudairekoa daukagu zintzilik.

Datorren ikasturterako, berriz, matrikula epean edonor euskaraz edo gaztelaniaz matrikulatu ahalko da Nafarroako edozein tokitan. Izan ere, inork ez du ulertzen euskaraz ikasteko eskubidea lurraldeari lotua izatea eta ez pertsonari. Baina hori, jada, aurreko legegintzaldian konpondu zen. Egin zen aldaketa nahikoa da Nafarroako edozein tokitan D eredua jartzeko.

**Kasu horretan muga ratioan egongo da, ezta?**

Bai, baina gaztelaniarako ere bai. Toki batean modurik ez bada, eskualdeko eskola edo institutuetan egongo da. Kasu horietan oso inportantea izango da D ereduko ikasleei ere

“Gure lehen egitekoetako bat eskoletako zuzendaritzak eraberritzea izango da. Orain arte, zenbait kasutan, bazirudien zuzendaritzak Departamentuaren enbaxada moduko bat zirela, hau da, Gobernuaren ordezkari”

“Autonomia handiagoa emanaz, alde batetik, eskoletako hautaketa demokratizatu nahi dugu, eta, bestetik, gure xedea da hezkuntza-komunitate osoa murgiltzea planifikazioan nahiz erabakietan”



garraiorako eta jantokirako eskubidea bermatzea, orain arte ez bezala.

**Uneotan euskaraz ikasteko kilometroak egin behar dituztenek badute garraioa eta jangela ordaintzeko laguntzarik?**

Ikasturte honetan horrek iaz bezala jarraitzen du. Baina datorren ikasturterako Nafarroa osoan gutzia normalizatu egongo da. Hau ez da pribilegio kontua, eskubide kontua baizik.

**D eredia zabaltzeko erronka horretan Euskararen Legea ez aldatzeak**

**ez du eraginik izango?**

Ez. Kontu hori nahiko ongi aztertuta daukat, hainbat urtez Euskara Kultur Elkargoko lehendakari izan bainaiz. Duela ia 10 urte ari ginen esaten, legea oso gutxi dagoenez garatuta, modifikaziorik gabe ere, borondate politikoa izanez gero, posible zela legalki Nafarroako edozein tokitan D eredian ikastea.

**Orain artean ikastolek bete dute paper hori. Aurrerantzea zer izango da?**

Ikastolek, euskarari dagokionez, egin dute Gobernuak egin nahi ez zuen

lana. Gure Gobernuak akordioan espreski dago jasota Ikastolaren lanaren goraipamen eta errekonozimendu hori. Hori hala, ikastolek hezkuntza kontzertatuaren parte izaten jarraitzen dute eta ez dago bestelako ez eskaera ez asmorik.

**LOMCE egosia jaso duzue. Adibidez, DBH eta Batxilergoko curriculumen dekretuak aurreko Gobernuak onartu zituen. Aurten, beraz, aurretik zetorrenari jarraitu diozue. LOMCEren ezarpena zein ondorio ari da izaten ikasturte honetan?**

Gu iristerako martxan zegoen dena. Aurreko Gobernuak ia-ia aitzindari ere izan zen zenbait gauza simulatzerako orduan. Sartu garenetik ikasturte hasierara ezin izan dugu ezta curriculumik aldatu ere egin. Lehen esan dudan moduan, gainera, ezin duzu hona iritsi eta dena hankaz gora jartzen hasi. Baina gu ikasturte honetan ere LOMCEk ahalik eta eraginik txikiena izan dezan lan egiten saiatuko gara.

**Adibidez, LOMCEren arabera, aurten LHko 3. eta 6. mailako azterketak egitea tokatuko da. Azterketa horiek egingo dituzue?**

Aurten segur aski egingo ditugu, baina gure erara moldatuta. Legea bortxatu gabe nahi duguna nola egin eta nahi ez duguna nola ez egin ikasten ari gara. Gauzak apurtzea erraza da, baina bide horretatik normalki ez da ezertxo ere lortzen.

**Espainiako hauteskundeetan zer gertatuko zain zaudete?**

Bai. Ikusteko dago nola osatzen den Espainiako Gobernu berria. Nik uste dut Nafarroan egin dugun antzera, Madrilan ere LOMCE ezabatzeko edo geldiarazteko akordio sendo bat lortu behar genukeela. Hauteskundeetan zain egongo gara, gero tarte bat izan behar genuke lege berri bat egiteko. Gure nahia litzateke gutxienez belaunaldi oso bat iraungo duen lege sendo bat egitea.

**Hezkuntza akordio sendoaren aldekoa zara. Nafarroan horrelako aukerarik egon daitekeela ikusten duzu?**

Gaur egun ez. Sekulako zatiketa

daukagu Nafarroan eta akordio sendoa lortzeko pedagogia handia dago egin beharra, ez soilik hezkuntzaren arloan, baita elkarbizitzaren arloan ere. Dena den, Gobernu honen oinarritzko filosofia da ahalik eta adostasunik handiena lortzea. Eta nik esango nuke dagoeneko pedagogia horrekin ari garela funtzionatzen. Etekinak? Luzera ikusiko ditugu, akaso.

### **Zer-nolako inportantzia ematen diozue irakasleen formakuntzari?**

Hori oinarritzkoa da. Hasierako formazioari dagokionez, zorionez Unibertsitatearekin harremanetan gaude ikusteko eta ikusarazteko zeintzuk diren formazio betebeharrak. Esaterako, PAI jartzeko asmoa izanik, nik ez dakit zergatik aurreko Gobernuak ez zuen eskatu Unibertsitate Publikoan irakasleak eskolak ingelesez emateko prestatzea. Hori hasierako prestakuntzari dagokionez; etengabeko prestakuntzari dagokionez, berriz, guk, adibidez, medikuntza dugu eredu, haiek uneoro prestatzen baitaude. Uneotan, aipatzekoa da, hainbat kasutan irakasle bakoitzak bere aldetik egiten duela prestakuntza, lanorduetatik kanpo; baina ikastetxe barruan ere egiten dira. Gainera, gobernuetatik ere programak aldatzen joaten direnez, formakuntza handiagoa behar dugu. Baina nik uste dut formazio hori irakasleen lanorduetan txertatu behar litzatekeela.

### **Lanbide Heziketa, LOMCE tarteko, bigarren mailako ikasketa bilakatu dela kexu dira asko.**

Apurte egin behar dugu LOMCEk dakarren eredia. Orain dela gutxira arte oso preziatua zen Nafarroan Lanbide Heziketa. LOMCErekin, berriz, sailkapen oso goiztiarra egiten da eta Lanbide Heziketara bideratzen dira bestean aurrera egin ezin dutenak. Badirudi Lanbide Heziketa bigarren mailako formazioa dela eta guk horri buelta eman nahi diogu. Gu jada hasi gara neurriak hartzen formazio aldetik eta prestigio sozial aldetik atzera ere Lanbide Heziketari balioa emateko.

### **Nafarroan haur-eskolek ere lan han-**

### **dia egiten dute, baina horiek printzipioz udalen eskumenekoak dira.**

0-3 artekoak udalen eskuetan daude. Akordioan jaso bezala, pentsatzen dugu haur-eskolak hezitzailea izan behar duela eta ezin dela soilik, lehen bezala, gizarte zerbitzuen arloaren baitan utzi. Iruditzen zaigu haur-eskolek heziketa funtzioa nahiz funtzio soziala betetzen dutela eta hori inportantea da. Izan ere, edozein psikologiako zein pedagogiako teoriak esaten du 0-3 adin tartean zer-nolako garrantzia duen haurraren garapen osasuntsurako.

### **Zer moduzko harremanak dituzue Nafarroako hezkuntza-eragileekin?**

Abuztua erabili genuen kontaktuak egin eta lehendabiziko harremanak izateko. Bestalde, hilero bilera bat izaten dugu elkarteekin. Sindikatuekin ere, banan-banan elkartu gara eta nahi dutenean eska dezakete Departamentuko edozeinekin egoteko bilera. Harremanak nahiko errazak direla esan dezakegu. Horrek ez du esan nahi gauza guztietan ados gaudenik. Hezkuntzako-mahaiak, normalki, erreibindikatioak izan ohi dira. Baina nik gehiago ere eskatu nien: aholkuak ematea eta iradokizunak egitea hezkuntzarekin loturiko edozein arlotan. Paper inportantea jokatzen duen beste eragile bat Hezkuntza Kontseilua da. Rol eragileagoa jokatzea sustatu nahi dugu.

### **Zer ibilbide egin daiteke Nafarroan hezkuntza erdigunean jartzeko?**

Horretarako jendearen pentsamoldea aldatu behar dugu. Gaur egun eredu Messi eta antzeko futbolari eta izarak dira, bide errazetik dirua metatu eta arrakasta lortzen dutenak. Beraz, pentsatzeko eta bizitzeko modua aldatzen ez dugun artean, berdina da zein lege egiten dugun, baina ez dugu hezkuntza erdigunean jartzetik lortuko. Eta ikuspegi aldaketa gerta dadin belaunaldi bat baino gehiagoko lana beharko da. Eta ez da soilik hezkuntzaren arloan jardunaz aldatuko hori, baizik eta esparru ezberdinetatik ekin beharko diogu. Nik askotan errepikatu ohi dut, Afrikan erabiltzen duten esaldi bat: "Haur bat hezteko tribu osoa behar dugu".

“Hezkuntzako langileek errekonozimendu publikoa izatea lortu nahi dugu. Horrek badu alde ekonomikoa, 2012ko murrizketak indarrean daudelako soldatei, ratioei, irakasleen ordutegiei... dagokienez. Horri ere heldu nahi diogu, konpromisoetan jasota baitago eta gure lehentasunetako bat baita”

“Datorren ikasturtean edonor euskaraz edo gaztelaniaz matrikulatu ahalko da Nafarroako edozein tokitan. Izan ere, inork ez du ulertzen euskaraz ikasteko eskubidea lurraldeari lotua izatea eta ez pertsonari”

# ESPERIENTZIAK

ESKOLA AGENDA 21

---

## Munduko 25 ekimen arrakastatsuen artean

UNESCOk Nagoyan (Japonia) antolatutako Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Konferentzian parte hartzera gonbidatu zuten INGURUGELA. Konferentzia 2014ko azaroan izan zen, Aichi-Nagoyan (Japonia). Konferentzia horretan, azken hamarkadako arrakastak eta bidean aurkitutako oztopoak aztertu ziren. Era berean, mundu osoko jardunbide egokien adibideak ikusteko aukera ere izan genuen, eta horien artean izan zen Euskadiko Eskola Agenda 21.

**E**kintza Globalerako Programaren (GAP) bidez Etorkitzen Jasangarrirako Hezkuntzaren lehentasunezko ildoak zehaztea izan zen konferentziaren helburua. ”.

### Zergatik gonbidatu gaituzte Japoniako Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Konferentziara?

Konferentziaren helburuetako bat Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako kasu arrakastatsuek eta jardunbide egokiak identifikatzea izan zen, eta erakusketa bat egitea 25 jardunbide

“arrakastatsuenekin”. Aukeraketa urtebete lehenago egin zen, eta Eusko Jaurlaritzak konferentzia horretan Eskola Agenda 21 proiektua aurkezteko gonbidapena jaso eta onartu zuen. Aurretik, 2010ean, UNESCOk jardunbide egokien artean izendatu zuen Eskola Agenda 21 proiektua, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako tresna egokia zela jabetuta.

### Zer da Garapen Jasangarrirako Hezkuntza (ESD: Education for Sustainable Development)?

Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren bidez, pertsona bakoitzak bizimodu jasangarria garatzeko beharrezko gaitasunak, ezagutza, jarrerak eta balioak bereganatzea sustatzen dugu.

Gai jakin batzuk eskola-bizitzan txertatzea da Garapen Jasangarrirako Hezkuntza, hala nola klima-aldaketa, biodibertsitatea, pobrezia-erazketa eta kontsumo arduratsua. Era berean, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea eskatzen du: ikasleena, irakasleena, familiaena eta irakasle ez diren langileena, berorien ohiturak aldatzeko eta jasangarritasunaren aldeko neurriak hartzeko. Horretan gabilta Eskola Agenda 21 proiektuarekin.

### Zer da Eskola Agenda 21 proiektua?

Ikastetxearen jasangarritasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa bat da. Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da, eta udalerriko garapen jasangarrian esku hartzen du, eta horretan laguntzen du. Ingurumen-hezkuntzako programa bat denez,

**Miren Agirreazkuenaga**

Bilboko  
Ingurugelako  
aholkularia





Miren Agirreazkuenaga Ingurugelako aholkularia, Higashiurako (Japonia) Ogawa Elementary School-eko bi ikasle eta Arantza Acha, Unesco Etxeko zuzendaria.

ingurumen-arazoan konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasunak, jarrerak, motibazioa eta konpromisoa garatzea da haren xede nagusia.

Ezaugarri hauek dituela esan dezakegu:

- . Bi eremu lantzen ditu: eskola bera, eta udalerria edo eskualdea.
- . Hezkuntza-komunitatearen partaidetza du ardatz eta oinarri, eta ikasleen protagonismoa bilatzen du.
- . Kudeaketa arduratsu eta jasangarria sustatzen du.
- . Curriculum-berrikuntza eragiten du.

### Nola antolatu zen Japoniarako bidaia?

Egia esateko, oso epe laburrean prestatu behar izan genuen dena. Konferentzian, 148 herrialdek hartu zuten parte, eta, Parisko UNESCOren izenean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hezkuntza Zerbitzua gonbidatu zuten, hau da, INGURUGELA. Stand bat prestatu behar genuen: posterrak,

liburuxkak, materialak... Bai eta aurkezpena egiteko ppt fitxategi bat ere. Eta hori guztia ingelesez eta oso denbora gutxian, dena Japoniara bidali behar baitzen hilabete lehenago.

Euskadiko ordezkariak 6 pertsonak osatu genuen: Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzako kide Amaia Barredok, UNESCO Etxeko Arantza Achak eta Nekane Viotak, eta INGURUGELAko pertsona batek.

### Nolako izan zen konferentzia?

“Learning today for a sustainable future” (gaur ikasi, etorkizun jasangarria izateko) lelopean, osoko lau bilkura, goi-mailako mahai-inguru bat, 34 lantegi eta 25 ekitaldi paralelo egin ziren konferentziak iraun zuen hiru egunetan.

Konferentzian, 1.000 lagunetik gora geunden UNESCOk gonbidatuta: UNESCOko kide diren estatuetakordezkariak, unibertsitateetako

ordezkariak, sektore pribatukoak eta gazteen elkarteak. Hizkuntza asko entzun ziren, eta, horien artean, gure euskara ere bai.

Han egon zen Euskadiko Eskola Agenda 21 proiektuaren ordezkariak ere, UNESCOko Zuzendari Nagusi den Irina Bokovak konferentzia inauguratu zuenean.

Hiru egun horietan, osoko bilkura bat egiten zen goizez, hamar urteotako lorpen eta erronkei buruz hitz egiteko, bai eta 2030erako planteak daitezkeen hobekuntzez jarduteko ere. Saio horietan, irizpide bateratuak bilatu nahi izan genituen, herrialde bateko zein besteko egoera sozioekonomiko eta kulturalak desberdinak izan arren. Saio horien ondoren, lantegiak antolatu ziren, bai goizez, bai arratsaldez. Hainbat gai landu ziren horien bidez, esaterako, Garapen Jasangarriko Hezkuntzaren kalitatean eragitea, politikatik praktikara igarotzea... Lantaldeetan banatuta, etorkizunerako ondorio bateratuak

landu genituen herrialde bakoitzaren ikuspegitik.

### **Eskola Agenda 21 proiektua azaltzeko aukerarik izan dugu?**

Kongresuen zentroko sarreran, 25 esperientzia onenen erakusketa ezarri zen. Han zegoen gure stand ere: "Education for sustainability in the Basque Country: School Agenda 21" izenekoa.

Stand horretan azaldu genien gure proiektua bai konferentzian parte hartu zutenei eta bai inguruko ikastetxeetako bisitariari ere. Ere horretan, aukera izan genuen UNESCOk jardunbide egokien artean aukeratutako beste 24 horiek ezagutzeko. Kontinente guztietako proiektuak zeuden. Horietako bost ziren europarrak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta UNESCO Etxeak aukera izan zuten ekitaldi paralelo bat (side-event) antolatzeko, eta, horrela, aukera izan genuen duela 25 urte INGURUGELAK sortu zirenetik Eusko Jaurlaritzak egindako bidea azaltzeko. Hiru lurraldetako jardunbide egokien adibideak aurkeztu eta partekatu ziren gure ekitaldian: Euskadikoak, Reuniongoak eta Western Provincekoak. Hitzaldi hau aurkeztu genuen guk: "The implementation of EDS in the Basque Country: School Agenda 21".

### **Zeintzuk izan dira konferentzietatik ateratako ondorioak?**

Konferentziaren ondorioak programa batean jaso dira, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren barnean etorkizunari begira landutako Ekintza Globalerako Programan (GAP). Lehentasunezko bost eremu hauek zehaztu dira:

1. Jasangarritasunerako Hezkuntza-aren aldeko politikak sustatzea.
2. Jasangarritasun-praktikak hezkuntzako curriculumean txertatzea.
3. Irakasleen prestakuntza.
4. Gazteen parte-hartzea eta autonomia sustatzea jasangarritasunaren alde.
5. Tokiko komunitatei eta udal-agintariari Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako programetan parte hartzeko eskatzea.

Beraz, ildo horiek bultzatzen lan egin beharko dugu guk ere etorkizuneari.

### **Japoniako eskolaren bat bisitatzeko aukerarik izan dugu?**

Bai, UNESCOrekin bazkide tutako bi ikastetxe bisitatu genituen laugarren egunean. Lehena, Higashiura-ko Owawa Elementary School. Eskola horretan, garapen jasangarriaren gaia eskola curriculumean nola txertatzen duten azaldu ziguten. Lehen Hezkuntzako eskola bat da, eta aten-

tzioa eman zigun ikasgeletan ordenagailurik ez ikusteak. Paperontzirik ere ez genuen ikusi.

Lanbide Heziketako ikastetxe bat ere bisitatu genuen: Aichi Commercial High School. Eskola horretan, merkataritza-arloko prestakuntza-ziklo bateko ikasleek Tokugawa honey proiektua erakutsi ziguten, ikasleek txokolatez eta eztiz egindako izozki bat. Ikastetxearen teilatuan erle-panelak dituzte, eta hortik lortzen dute eztia. Bestalde, erabiltzen duten txokolatea bidezko merkataritzako produktua da. Aukera ematen die horrek hainbat gai lantzeko: airearen kalitatea, biodibertsitatea, ekonomia iraunkorra, lehengaien lanketa herrialdez herrialde, bidezko merkataritza...

### **INGURUGELAK jarduera ugari garrantzen ditu; orain ere, jardunaldi batzuk antolatu ditugu 2015eko azaroan.**

"Jasangarritasunerako Hezkuntzarako Euskadiko IV. Jardunaldiak" dira, eta hauxe da gaia: "Hezkuntza eta jasangarritasuna etorkizunera begira". 2015eko azaroaren 26an, 27an eta 28an izango dira, Bilbon. Beraz, parte hartzera gonbidatuta zaudete guztiok, denen partaidetza interesgarria izango da eta...

Zorionak eta eskerrik asko Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duzuen ikastetxe guztioi!

## **Zergatik hautatu gaituzte eredu gisa?**

- Euskadik, Ingurumen eta Hezkuntza Sailek sustatuta eta INGURUGELAK koordinatuta dagoen Eskola Agenda 21 programaren bidez, ingurumena euskal hezkuntza-sistemaren ardatzetako bat izatea lortu delako.
- EAEko ikastetxeen % 60 baino gehiago (450 ikastetxe, 226.684 ikasle) daudelako sartuta Euskadiko programa horretan. Horietatik 96k ikastetxe jasangarriaren agiria lortu dute.
- Berrikuntza-proiektu bat delako, eta jasangarritasuna lantzen delako kudeaketan, curriculumean eta parte-hartzean.
- Ikastetxeen hausnarketa, proiektuari lotutako prestakuntza, diziplinarteko lana eta ikastetxeetako askotariko mailen arteko elkarlana sustatzen dituelako.

- Lan-metodologia bat sortu delako, eta metodologia horretan informazioa jasotzea, pentsamendu kritikoa, sortzailea, talde-lana, elkarkidetasuna, egiten eta ekiten ikastea... lantzen direlako.
- Udalek ikastetxeen konpromiso eta proposamenak entzuten eta erantzunak ematen dituztelako, Eskola Agenda 21 Tokiko Agenda 21ekin uztartuz.
- Elkarrekin lan egiten duten udaletako eta eskualdeetako ikastetxeen artean sareak sortu direlako. Sare bateko zein besteko ikastetxeek (publikoak eta pribatuak) eta maila guztietakoek (Haur Hezkuntzakoek, Lehen Hezkuntzakoek, Bigarren Hezkuntzakoek, Lanbide Heziketakoek, Helduentzako Hezkuntzakoek) batera lan egiten dutelako programan, helburu bera lortzeko asmoz.

# HEZITZAILEENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK



AZAROAREN 14an TABAKALERAN

**9:00 SARRERA:**  
(Guztientzako sarrera orokorra)

Haurren aisialdi parte hartzaile, euskaldun, hezitzaile eta herritarra garatzen

**10:00 LEHEN SAIOA:**  
(Bietako bat aukeratzeko)

- Nola sustatu haurren parte hartzea ikuspegi feministatik
- Parkeak biziberritzeko modu berriak

**12:00 BIGARREN SAIOA:**  
(Bietako bat aukeratzeko)

- Nola egin ludoteka parte hartzailea
- Nola egin udaleku parte hartzailea

**IZEN EMATE MUGATUA (60 PLAZA) 25€**  
(Formakuntza saioan OinHerriko liburuxkat banatuko dira)

eman izena: [www.eguz.weebly.com](http://www.eguz.weebly.com)



# EKARPENAK 1

MUSIKA ETA KANTAGINTZA ESKOLAN

---

“Musika da gizakiaren ageriko arima, barneko ahotsa, sendimendua”

Musika eta kantagintza berez lotuta badaude ere, hemen bananduta erabili nahi ditut: alde batetik, musika-arloa oro har, eta, bestetik, kantagintza bereziki, biek duten garrantzia goraiatzeko eta eskolan duten eraginari buruz hobeto hausnartzeko.

**M**usika arloa eskolan Hezkuntza-arloan egin dudan ibilbide luzean, eskolan musika lantzearen aldeko defendatzaile sutsua izan naiz. Horretarako, batez ere bi kontzeptu hauek izan dira nire defentsa tinkoaren oinarriak: Musika izenaren izana, batetik, eta musikako pedagogoa eta hezitzaile aparta izatea bestetik.

## Musika izenaren izana

Naturaren beraren ezaugarri bat da soinuak. Nola ulertu natura isil bat, mutua, soinurik gabea? Zer ote litzateke txori-kantarik gabeko udaberria?

Musika da gizakiaren ageriko arima, barneko ahotsa, sentimendua; alai edo triste kanporatzen den arima.

Iñaki  
Lasa  
Nuin

Irakaslea

Musikak ezin hobeki lotzen ditu natura eta gizakia. Musika egiteko soinuak eta soinu horiek sortzeko tresnak naturatik hartu ditu gizakiak: haizea (airea), harria, zura, metala, hariak... Edota doinuak, erritmoak, harmonikoak... Soinuak egiten ere naturak berak erakutsi dio. Nola uler daiteke gure neska-mutilen heziketa integrala, garrantzitsua den atal hori behar bezala garatu gabe? Hots: musikaren bidez barne-sentimenduei loratzen utzi gabe? Gure bizitzaren parte da musika.

## Musikako pedagogoa eta hezitzailea

Bai, musikarekin jolastea haurren bizitzan erabil dezakegun metodorik ederrenetakoa dugu, alai eta pizgarrietakoa, noski. Musika-arloa lantzean, orain modan dauden gaitasun gehienak praktikatzen dira edozein ariketa egiterakoan. Musika-arloa da, bat-batean, gaitasun gehien lantzen dituen ikasgaietako bat. Gaitasunez gain, gehien lantzen duen arloa jarrerena dela esango nuke nik. Aurretik esan dugu musika gizakiaren ageriko arima dela, eta, arima aipatzean, gure barneko, ezkutuko, sakoneko zerbaitez ari gara. Bai musika egiteko eta bai musika entzuteko, isiltasun eta kontzentrazio handia behar dira, gure burmuinetik harago doan bihotzetik eta barne-lekuetatik



igarotzen baita. Adimen hutsarekin egindako musikak ezer gutxi esaten digu, baldin eta ez badigu transmititzen sentimendu-karga bat. Beraz, *isiltasunak, kontzentrazioak, barne-sentimenduak, norberaren kontrolak, elkarlanak, erritmo komunak* eta beste hainbat alderdik argi adierazten digute eskolan musika-arloa jorratzeak zer-nolako onura pedagogikoak dakartzan.

### Kantagintza

Hasieran esan dugunez, kantagintza ere musika-arloa da, baina bereziki aipatu nahi nuke hemen. Izan ere, kantatzea edo kantagintza eskoletan oinarritzat hartzeak onura handiak dakarzkie neska-mutilei, eskolari berari, euskarari eta Euskal Herriari.

Ahotsa da musika-tresnarik ederrena, dudarik gabe. Berez, zoragarria da norberak bere gorputza erabiliz, ahoaren bidez, soinu musikal ederrak egiteko ahalmena izatea.

Badu ahotsak beste aberastasun handiagorik ere. Ahotsa da musika-tresna bakarra, askotariko soinuak sortzeaz gain, hizkuntza musika bihurtzeko gaitasuna duena. Ez dago

hori egin dezakeen beste musika-tresnarik. Txistuak edo klarineteak oso soinu politak egiten dituzte, baina ezin dute “Maite zaitut” esan hitzez. Zer-nolako aukera musikaren goxotasunean gure hizkuntza, euskara, erabiltzeko eta lantzeko!

Ahotsa ere landu egin behar da, eta, zoritxarrez, eskola da gaur egun hori egin dezakeen leku bakarrenetakoa. Lehen, garai batean, Elizan, elkarte batzuetan, etxe batzuetan... kantatzen zen; orain, non kantatzen da? Ahotsa eta belarria kantatuz lantzen dira, eta, eskolan, une oro abestu behar da, leku guztietan, ez soilik musikako orduan. Abestu egin behar du umeak.

Kantagintza, hizkuntza lantzeko ez ezik, Euskal Herriko ohitura eta kulturaren transmisioa egiteko ere biderik ederrenetakoa da. Beraz, ezinbestekoa herri izaten jarraitu nahi badugu.

Arlo honetan, aipamen berezia egin nahi nioke bere bizi guztian maisu izan dugun Imanol Urbietak musikari eta pedagogoari. Hark oso ongi uztartu ditu *haurra, hizkuntza eta transmisioa*, hiru elementu horiek

pedagogia mamitsu batean itsatsiz, kantua jolasarekin nahasiz.

Hona hemen azken gogoeta bat, irakasle eta lankideoi eta eskoletan arduraren bat daukazuen guztioi zuzendua. Kantatzea guztion jolasa eta haur guztiek egin beharko luketena bada ere, beharrezkoa da horrez gain askotariko ekimenak antolatzea, kantagintzarako gogoia eta zaletasuna pizteko. Bestalde, ialetasuna eta zaletasuna duten haurrekin kantagintza abesbatza gisa lantzea ere onuragarria da, alde batetik, lagunak eta adin bereko ikasleak entzule interesatu bihurtzen dituztelako eta, bestetik, biharko abesbatzetako kideak eta abeslari zaletuak sortzen dituelako horrek. Horrela, hobetu egingo da eskolako kantagintza orokorra ere. Sekula ez da nahikoa, baina badugu Euskal Herrian haurrentzako grabatutako material mordoxka, eta, antzeko materiala aurkitu nahi izanez gero, bada webguneetan zintzilikatutako beste horrenbeste material ere, karaokeak barne. Gure eskuetan dago kantagintzaren etorkizuna. Jakin eza zu gaur egun eskolek bakarrik bete dezaketela behar hori. Beraz, aurrera!

# EKARPENAK 2

MATEMATIKA LEHEN HEZKUNTZAN

---

## Singapur metodoaren curriculum-azterketa bat

Irakaskuntzaren kalitatea neurtzeko erabiltzen diren nazioarteko frogetan, emaitza onak lortzen ditu Singapurko curriculumak matematikaren arloan. Horren eraginez, Singapurko curriculumean eta testuliburuetan oinarritzen diren gero eta proposamen gehiago aurki daitezke Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.

Singapurko curriculumak metodo jakin batekin erlazionatzen da, eta, metodo horren arabera, problemen ebazpena ipintzen da eskolako jarduera matematikoaren erdigunean. Problema ebazterakoan, ikasleak aktibatu egiten ditu zenbait jarrera, martxan jartzen ditu zenbait *prozesu* eta *trebetasun*, hainbat *nozio* erabiltzen ditu, eta, azken finean, bere ikaskuntza-prozesuarekiko ezagutza edo *metakognizioa* garatzen du (1. irudia).

Hala ere, nazioartean emaitza onak izan arren, Singapurko curriculumak

ren arrakasta hainbat faktoreren arabera izan daiteke, eta komeni da matematika-curriculumak xeheki eta objektiboki aztertzea. Horretarako, Nafarroako eta Singapurko curriculumak eta testuliburuak alderatu dira, oinarritzko gaitasunak eta irakaskuntzaren helburuak deskribatzen dituzten zenbait adierazleren arabera (1. taula). Honela, Singapurko matematika-curriculumaren egokitze-maila aztertu nahi da.

Beraz, 1. taulako adierazle horien agertzeak (1) eta ez-agertzeak (0) aztertu dira, alde batetik, Nafarroako Lehen Hezkuntzako Curriculumean (Nafarroako Gobernua, 2007) eta Singapurko curriculumean (*Singapore Ministry of Education*, 2007), eta, bestetik, Nafarroako testuliburuetan (Goñi, 2002, 2003, 2004) eta Singapurko testuliburuetan (Hong, 1994). Kasu batzuetan, adierazlea partzialki agertu da ( $\frac{1}{2}$ ) aipatutako dokumentuetan.

### Testuliburuak

Hiru ardatzetan oinarritzen da Kal“Singapur metodoa” izenarekin kaleratzen diren hainbat liburu eta frankizia dauden arren, Singapurko argitalpen ofizialak hartu dira azterketa egiterako orduan. Testuliburu horien diseinu grafikoa egokia da Lehen Hezkuntzari begira: orrial-

**Nerea  
Gastaminza  
eta  
Aitzol Lasa**

NUPe  
irakasleak



1. irudia: jarduera matematikoa Singapur metodoaren arabera.

deak garbiak dira, eta ez da agertzen haurren arreta desbideratuko duen elementurik; irudi ugari dituzte, eta, irudi horien bidez, lagundu egiten zaio ikasleari ariketa ebazten.

Edukien antolaketa, berriz, klasikoa da. Edukiak bloketan aurkezten dira, eta aurkibide bat dago testuliburu bakoitzaren hasieran, non gaien izenburuak eta gai horietan sakontzeko ebatziko diren ariketak zerrendatzen diren. Hau da, Nafarroako testuliburuetan ez bezala –horietan edukiak integratu egiten dira–, edukiak bloketan antolatzen dira Singapurko proposamenean, eta ez dago inongo erlaziorik bloke horien artean. Horrez gainera, ikasle bakoitzari lan-

koaderno bat egokitzen zaio Singapur metodoaren barnean. Lan-koaderno horietan, ikasleek sakondu eta indartu egiten dituzte testuliburuan aurkezten zaizkien edukiak.

Singapur metodoak garrantzi handia ematen die baliabide fisikoei. Horrela, testuliburuetan proposatzen diren jarduerak material fisikoen laguntzaz ebatzeko moduan daude diseinatuta. Ildo horretan, esan daiteke matematikaren irakaskuntzan hedatua eta onartua den ikusmolde bati jarraitzen diola metodo honek: jarduera matematikoa objektu *konkretuen* manipulazioarekin hasten da; horren ondoren, *konkretutik* adierazpen *piktorikora* igarotzen da, eta, azkenik,

adierazpen *piktorikotik* *abstraktura* (KPA). Singapurko testuliburuetan, eskema horri jarraitzen zaio, batez ere zenbakikuntza-sistema eta neurria lantzeko jardueretan. Ezin esan daiteke KPA eskema Singapur metodoaren berrikuntza bat denik, baina metodoak eskema horren erabilera egokia egiten du, inondik inora. Tamalez, erabiltzen ez diren baliabide fisikoak gainezka dituzte hainbat armairu Nafarroako zenbait ikastetxe.

### Curriculuma

Esan daiteke, beraz, Singapur metodoak Lehen Hezkuntzarekin koherentea den metodologia egokia darabilela. Hori horrela izanik ere,

Singapurko curriculum eta Nafarroakoa ez datoz guztiz bat. Edukiak ezaugarritzen dituzten sei adierazleen artean (zenbakiak eta eragiketak, neurria eta geometria), bi ez dira Singapurko curriculumean aurkitu, eta, beste bat, modu partzialean aurkitu da.

Esate baterako, 1E2 adierazlea ez da curriculumean aurkitu, nahiz eta metodoaren testuliburuetan agertzen den. Beraz, esan daiteke gabezia hori ez dela larria, curriculumean agertu ez arren, testuliburuetan eta lankoadernoetan agertzen delako. Larriagoa da 2E2 adierazlearen kasua, ez baita agertzen ez curriculumean, ez testuliburuetan, ez eta lanerako koadernoetan ere. Honenbestez, ez da jarduera-proposamenik egiten, esate baterako, denbora-magnitudea lantzeko: denbora neurtzeko unitateak ezagutzen dira, baina horien arteko erlazioa ez da lantzen.

Amaitzeko, irudi lauen eta gorputz geometrikoen konposizioa eta deskonposizioa identifikatzen dituen 3E1 adierazlea partzialki lantzen dela ondoriozta daiteke, konposizioa lantzen delako, baina deskonposizioa, aldiz, ez.

Honenbestez, 2. taulan laburtzen dira adierazleek curriculumean dituzten presentziak eta gabeziak. Laburbilduz, Singapur metodoa erabili nahi izatera, beharrezkoa izango da material osagarriak erabiltzea, zehaztu diren hutsune horiek betetzeko.

1. taula: alderatu diren adierazleak

G1	Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala.
G2	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
H1	Irakurriaren ulermena bultzatzea matematikako testuak erabiliz. Matematikaren arloko hiztegi berezia egoki eta zehatz erabiltzea.
H2	Ingurunean dauden egoerez ohartzea, horiek ulertu edo tratatzeko kalkuluko oinarriko eragiketak behar direnean, eta horiek adierazpen matematikoaren forma errazekin formulatzea, edo dagozkien algoritmoak erabiliz ebaztea.
1E1	Zenbakiak identifikatzea eta horien arteko ordena, erlazioak eta konparazioak egitea eguneroko bizitzako egoeretan.
1E2	Zenbakiak, horien arteko erlazioak eta eragiketak informazioa lortu eta adierazteko, mezuak interpretatzeko eta egiazko egoeretan problemak konpontzeko erabiltzeko gai izatea.
2E1	Magnitude bereko unitateak eta kantitateak konparatzea eta antolatzea.
2E2	Denbora neurtzeko unitateak eta horien arteko erlazioak erabiltzeko gai izatea.
3E1	Irudi laiak eta gorputz geometrikoak eratzea, beste batzuen konposiziotik eta deskonposiziotik abiatuta.
3E2	Irudi eta gorputz geometrikoak zenbait irizpideren bidez konparatzea eta sailkatzea.

2. taula: presentziak eta gabeziak curriculumean

### Erreferentziak

- Gastamintza, N. (2015). *Nafarroa eta Singapurreko matematika curriculumen arteko alderaketa*. NUP.
- Goñi, J.M. (2002, 2003, 2004). *Matematika Baga-Biga 1-5 (Lehen Hezkuntza)*. Donostia: Elkar.
- Hong, K.T. (1994). *Primary Mathematics Textbook (3rd edition)*. Singapore: Marshall Cavendish Education.
- Nafarroako Gobernua. (2007). *Lehen Hezkuntzarako Curriculum*.
- Ministry of Education Singapore. (2007). *Mathematics Syllabus Primary*.

	Nafarroako testuliburua	Singapurko curriculum	Singapurko testuliburua
1E1	1	1	1
1E2	1	0	1
2E1	1	1	1
2E2	1	0	0
3E1	1	1/2	1/2
3E2	1	1	1



# URRIAK 21 - AZAROAK 8

## Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

### HARTU ETA EMAN

SASKIA 50€REN TRUKE  
AUZOLANARI ESKER

NAFARROA HEGOALDEKO  
EUSKALGINTZARI %25



## 15 EKOIZLE

EBRON · MARIA JESUS · BARDEA  
ITURRI · PEDRO LUIS · EL ESCOLAR  
LA CASA DEL ACEITE · LA CHURTA  
EKOLO · EL ROSARIO · ALMANAQUE  
LEZAUN · MENDIKO · AZPEA · MELETA



## 3 PROIEKTU

LODOSA ETA VIANAKO IKASTOLEN  
BIZIRAUPENA · ERRIBERAKO  
AEK · D EREDUA NAFARROA  
OSORA · ZABALTZEKO EKIMENAK

# GALDEIDAZU

## NOLA ATERA BEHAR DIRA ARGAZKIAK DOKUMENTAZIO NARRATIBOAK EGITEKO?

**A**rtikulu honen helburua eskoletan irudi dokumentalak egiteko moduari buruzko iradokizunak eta argibideak ematea da. Dokumentatzeko modu bakoitzak gaitasun tekniko batzuk eskatzen ditu; irudiak ulertzeko eta prestatzeko modu jakin batzuk. Ez da gauza bera panel bat egitea edo liburuxka bat argitaratzea; edota kartel bat egitea, powerpoint bat muntatzea, edota DVD bat editatzea.

Hemen, zehazki, irudi finkoen dokumentazio-oinarria landuko dut; hau da, argazkigintza, dokumentazio gisa. Eta horrelako irudiak egiteko zenbait irizpide aipatuko ditut.

### **Ez da gauza bera dokumentatzea eta argazkiak ateratzea**

Dokumentatzea begiratzen ari garen hezkuntza-prozesu baten lekukotasun estetiko eta narratiboa uztea da, modu bisualean, ikus-entzunezkoan nahiz idatzizkoan. Beraz, Mónica Guerrak (2011) dioenez, entzutearen pedagogiarekin estuki lotuta dagoen proiektu baten ezinbesteko osagaia da: ikusi eta irakurri egin daitekeen entzunaldia. Dokumentazioa ez da mugatzen lehendik dauden gauzak ikusgarri egitera; gauzak existitzea ere eragiten du; batez ere, ikusgarri egiten dituelako eta, horren ondorioz, posible egiten dituelako. Hezkuntza ulertzeko modu bat da, eta barnean hartzen ditu hurrek egin dutenaren edo egingo dutenaren inguruko ziur-



### **ALFREDO HOYUELOS EUROPAR DOKTOREA**



gabetasuna, enigma eta misterioa ere.

Dokumentatzea gertatutakoaren gainean egindako interpretazio idatzia da. Azken batean, metainterpretazio bat da; izan ere, irudien bidez, hurrek bizi duten egoera gure ustez nola interpretatzen duten interpretatzen dugu. Gabriel Villotak dioenez, onartu beharra dugu: argazki-makinak *inoiz ez du «leialtasunez» erreproduzitzen aurrean duen errealitatea, baizik eta hura aldatu eta eraldatu egiten du, halabeharrez. Zergatik eraldatzen duen? Bada, erabakiak hartzen ditugulako; adibidez, zer sartu planoan, zer ikuspegi eskaini, noiz egin klisk, eta abar. Prozesu hori aurrera eramateko, gainera, ezinbestekoa da jarrera egokia izatea, etikaren, gorputzaren eta dokumentalaren aldetik.*

Deskribatu besterik egiten ez duen argazki bat (esaterako, Xabier eta Anne purea jaten ari dira) ez da narrazio dokumental bat. Narrazio dokumental batek Xabier eta Anerentzat purea jateak zer zentzu duen ulertzea eskatzen du; haurren, exegesiaren eta heuristikaren ikuspegietatik, batik bat. Dokumentazioa ez da jazotako gertakarien kronika erreala. Alderdi ugari azaldu behar ditu irudiak: umeen asmoak, beren begirada bereziak, janaria ulertzeko duten modua, beren erronkak, beren kultura, beren zirrarak, harremanen aldetik elkarrekin egoteak haien zentzu duen zentzua, ideien trukea,

kutsatzeak, imitazioak, erritmoak eta elkarrizketak.

Irudi dokumentalak, gainera, zaindua eta estetikoa izan behar du teknikaren aldetik. Horretarako, ezinbestekoa da irudiak sortzen diren testuinguruak eta agertokiak ere ederrak izatea.

Lortzen dugun irudi bakoitzak bertuteak eta balioak, mugak eta traizioak ezagutarazten eta aurkitzen ditu, haurtzaroko, bizitza profesionaleko, familiako eta eskolako gure irudiei dagokienez. Horixe da aurrera eramane behar dugun lehenengo analisi-takota bat.

Irudi batek, kontakizun bihurtzeko, mezu zehatzak komunikatu behar ditu. Forma eta edukia semantikoki lotu behar ditu: narrazioak esanguratsua izan behar du, eraginkorra, egia, konplexua, ikuspegi ugari emateko gauza dena, interpretazio eta berrelikadura anitzekoa.

### **Jarduteko modu posible bat**

Hogei urte baino gehiago daramatzat Iruñeko udal haur-eskoletan *atelierista* gisa lanean. Nire lanbidearen zati garrantzitsu bat hezkuntza-prozesuak dokumentatzea da. Modu asko daude dokumentatzeko. Ikerlan bat egiten dugunean, adibidez, begien aurrean gertatzen dena berehala harrapatzen saiatzen naiz, horren ondoren, bizitakoaren berri emango duten irudi egokiak aztertzeko eta aukeratzeko. Modu bat baino ez da hori.

Baina, dokumentazio zehatzak aurrera eramane ahal izateko, bada beste estrategia bat ere, aurrekoa osatzen eta berrelikatzen duena, planifikatua goa eta taldean beste hezitzaile eta zuzendari batzuekin batera egin ohi dudana. Orain azalduko dut.

Eskoletan profesionalek eguneroko bizitzako alderdiren baten inguruko irudiak egiteko eskatzen didatenean, nik, lehenik eta behin, gai horren inguruan egin dituzten behaketak eta gogoetak eskatzen dizkiet: zer ikusi duten, zer interpretatu eta hausnartu duten, zein diren beren galderak, beren proiektua. Zehazki zer komunikatu nahi duten ulertzen dudanean, papera eta bolaluma hartu, eta behaketa zuzena egiten dut, esan didatena nire behaketekin finkatzeko.

Gero, bilera bat egiten dugu, eta nik egindako behaketak modu kritikoan balioesten ditugu. Nire behaketek badute oinarri estetiko ere: osaera kromatikoa, eremuan dauden objektuen desordenen inkoherentzia, keinu egokiak eta desegokiak, altzarien kokapen espazialak, etab. Horrek zenbait aldaketa garrantzitsu eragiten ditu hezkuntza-praktikan, bai eta behaketa eta gogoeta berriak ere.

Gero, dokumentatu beharreko sekuentziak aukeratzeko ditugu, eta horiek nola dokumentatu zehazten dugu. Horretarako, erabaki garrantzitsuak hartu behar ditugu alde aurretik, eta argazkigintzako zenbait alderdi tekniko ere aintzat hartu behar ditugu.

### **Azaleko irudiak eta sekuentzia-irudiak**

Azaleko irudiak irudi bakar batean biltzen du esan nahi dugun guztia. Sekuentzia-irudiak hainbat argazki dira; normalean, prozesu bat adierazten duten irudiak, prozesu hori denboran zehar nola garatu den azaltzen dutenak. Zerbait behar bezala azaltzeko, ahalik eta argazki eta plano gutxien erabiltzen saiatu behar dugu.

### **Argazki-planoak, enkoadraketaren irekiduraren arabera**

Erabaki garrantzitsua da plano egokia aukeratzeko, eta irudiaren enkoadraketarekin zerikusia du: zer jarriko dut bisorearen barruan, eta zer utziko dut kanpoan? Jarduteko modu horren arabera, irudi dokumental bat ez da eskolan gertatzen den guztia biltzen duen gauza objektibo bat; subjektuen arteko eraikin bat da, besteekin partekatu nahi dugun gauza zehatz bat biltzen, interpretatzen eta komunikatzen saiatzen dena.

#### **- Plano orokorra**

Funtsean, informazioa ematea da haren funtzioa. Ikuslea testuinguru jakin batean kokatzen laguntzen du. Batez ere, haurrak une eta leku zehatz batean jartzen ditu.

#### **- Plano amerikarra edo $\frac{3}{4}$ plano**

Haurrak belaunetik moztzen dituen plano da. Espazioari buruzko infor-

mazioa eta espazio horretan kokatzen ditugun subjektuen ekintzei buruzkoa ematen dugu.

#### **- Plano ertaina**

Haurrak gerritik gora ateratzen dituen plano da. Ez du lehen planoaren intentsitate psikologikoa, baina ondo jasotzen du keinu-hizkuntza, umeen ekintzei adierazpen-indarra ematen baitie.

#### **- Lehen plano**

Burua eta sorbaldak hartzen ditu. Umeen keinuetan, aurpegiko espre-soietan, sentimenduetan, pentsamenduetan eta asmoetan jartzen du arreta.

#### **- Xehetasun-plano**

Haurren atal bat jasotzen du: zerbait egiten ari den eskua, begiratzen ari diren begiak, seinalatzen ari den hatza, oin baten hizkuntza, objektu baten xehetasuna... Haurren prozesuak ulertzen laguntzen du, eta zehaztasun poetikoekin lotzen.

### **Argazki-planoak, angeluazioaren arabera**

Oso garrantzitsua da kamera zer norabidetan kokatzen dugun, erreallitatearen inguruan eman nahi dugun ikuspegiari buruzko erabaki bat adierazten duelako.

#### **- Normala**

Kamera haurren begien pare-parean kokatzen da. Dokumentatzen hasteko, plano hau erabiltzea gomendatzen dut nik, haurren ekintzei ondo, gertutik eta modu enpatikoan jarraitzeko modua ematen duelako. Beraz, esaterako, ume bat lurrean buruz behera etzanda jolasten ari bada, guk maila horretatik bertatik atera beharko dugu argazkia. Beste erabaki garrantzitsu bat plano hori nolakoa izango den zehaztea izango da: umearen aurpegiaren kokapenari dagokionez, aurretikoa izan daiteke, edo albotik egin daiteke, edota apur bat biratua, etab.

#### **- Murgildua**

Kasu honetan, argazki-kamera goitik behera kokatuko dugu: gure ikuspegitik, lurrera zuzenduta. Haurrei argazkiak ateratzeko orduan gehien erabiltzen dena horixe dela iruditzen

zait. Arretarik gabe edo gaizki erabiliz gero, haurrak txikiagotu egiten ditu; edota, hurrekin konparatuta, heldua goragoko maila batean eta urruti dagoen sentsazioa eman dezake. Ez da oso egokia haurren espresioak behar bezala islatzeko eta beren zirrarak jasotzeko, buruak edo ileak traba egin dezaketelako.

#### **- Zenitala**

Plano honetan, kamera lurrarekiko perpendikularrean kokatzen dugu. Ondo eta neurritz erabiltzen bada, oso lagungarria izan daiteke haurren jokabidearen zenbait alderdi ateratzeko. Adibidez, mahai baten gainean dagoen paper zati batean idazten ari bada haur bat, oso eraginkorra izaten da haurrak orriaren gainean dituen eskuen plano zenitala egitea, tresna grafikoa bere arrastoa uzten ari den bitartean.

#### **- Kontramurgildua**

Umeei behetik ateratako argazkiak dira. Plano mota horrek areagotu egiten du erretratua atera zaion subjektuaren garrantzia, handitu egiten duelako. Oso noizean behin erabiliz gero, oso eraginkorra da haurren kulturari buruzko xehetasunen berri emateko.

#### **- Nadir puntua**

Zenitaren aurkakoa da. Adibidez, haur bat jolastokian zeruari begira badago eta berak ikusten duen hodei zehatzari argazkia ateratzen badiot, nadir plano bat litzateke hori.

#### **- Holandesa**

Kamera albo batera okertzen dugunean, angelua holandesa dela esaten dugu. Narrazioarekin lotuta nahita hartutako erabakien ondorioz baino ezin da erabili. Besterik ez.

#### **- Plano subjektiboa**

Pertsonaia baten begiradarekin bat datorren plano da. Oso lagungarria da umeen ekintzen, asmoen edo ikuspegi posibleen berri emateko. Adibidez, neska batek mutiko bati botatzen dion begirada xehetasun-plano batean jaso ostean mutiko horren plano ertaina egiten badugu, neska hori zeri begira dagoen ulertzen lagunduko dugu.



Plano baliotsu hori erabiltzeko, oso behaketa zehatzak egin behar dira, eta erabaki etiko zuhurrak hartu. Ondo dokumentatzeko, plano bakoitzaren erritmoa eta planoen aurreikuspen eta antolakuntza egokiak zentzu osoz bateratu behar dira.

#### **Fokuratzea eta eremu-sakontasuna**

Eremu-sakontasuna fokuratutako eremuaren aurrean eta atzean dagoen eremua da, garbi ikusten diren lehenengo eta azken puntuen artean kokatutakoa. Zentzu horretan, neska baten plano ertaina egiten badugu, atzealdea fokuratzeko edota fokutik ateratzeko erabakia hartu dezakegu. Reflex kameretan, diafragman kontrolatzen da alderdi hori.

#### **Une zehatza**

Gogoan dut nola behin liluratuta begira egon nintzaion jolastokiko bazter batean belarra behin eta berriz laztantzen zuen haur baten eskuari. Haren eskuak gozatu egiten zuen hosto txikien artean. Nik kartel baterako azaleko argazkia atera nahi nuen, xehetasun-planoa erabilita. Pentsatzen ibili nintzen zein izango zen prozesu horren funtsa islatuko zuen une magiko zehatza, betiereko

une lapurtua. Une horretantxe sakatu behar da kliskagailua; ez lehenago eta ez beranduago.

#### **Irudiak biltzea**

Espero ditugun edo ezagutzen ditugun irudiak lortzeak ez du esan nahi bat-batean, ustekabean, beste irudi batzuk ezin ditugula lortu. Azken finean, dokumentazio-estrategia honetan, erabaki gehienak alde aurretik hartzen dira, dokumentazio-proiektua zehaztasunez eta zorroztasunez egiteko. Gero, egindako irudiak zehatz-mehatz aztertu, eta horietako batzuk aukeratu ditugu. Aukeraketa hori egiteko, zenbait irizpide betetzen ditugu:

#### **- Haurren, gure lanbidearen, eskolaren, familiaren irudia**

Gogoan dut behin, haurrak bazkaltzen ari zirela, jangelaren plano orokorra, ia zenitala, egin nuela, eskailera altu batetik. Ume batzuek jarrita zeukaten ordurako adur-zapia; beste batzuek, ez. Argazkian, hezitzailea zutik ageri zen, ume bakoitzari banan-banan adur-zapia atzetik jartzen, haurrei begiratu ere egin gabe. Irudiaren beste angelu batean, purez betetako 20 plater zeuden, mahai baten gainean. Denak berdinak ziren, denak maila

berbereraino beteak, denak umeei emateko prest. Beste hezitzaile bat ere ikus zitekeen, plater gehiago betetzen. Argazkia hartu, eta hezitzaileei erakutsi nien; profesional bikainak dira. Beren hezkuntza-proiektuaren dokumentazio-komunikazioan, ume bakoitzari zioten errespetua erakutsi nahi zuten; egunerokotasunaren barruan, betiere. Hala geneukan aurrez adostuta: nik balio horiek islatu behar nituen argazkian. Baina, nik erakutsi nien argazkia *homogeneizatzailea* eta *estandarizatzailea* zenez, ez zituen aipatutako balioak behar bezala islatzen. Hortik abiatuta, aldaketa garrantzitsuak egin zituzten hezkuntza-praktikan; adibidez, umeei zenbat janari nahi zuten galdetzen zieten, eta bakoitzari bere janaria hartzen laguntzen hasi ziren. Horretaz gain, umeei adur-zapia jartzeko moduz hitz egin genuen: noiz jartzen zieten, haurrak horretarako prest zeuden, adur-zapia jartzean elkari nola begiratzen zioten... Aldaketa horiek guztiak egin zituztenetik denbora batera, berriro joan nintzen irudiak hartzera, eta, orduan atera nituen argazkietan, askoz ere hobeto eta modu naturalagoan islatzen ziren hezkuntza-proiektuaren balio *teorikoak*. Osatutako dokumentazioan, hezitzaile bat ikus dezakegu, makurtuta, ume bati adur-zapia jartzen, elkari begira daudela. Han eta hemen, beste ume batzuek dagoeneko jarrita daukate adur-zapia. Halaber, estetikoki aukeratutako ontzi batetik janaria hartzen eta bere platerera ateratzen ari den neska bat ikus dezakegu.

#### - **Azterketa formala eta tekniko**

Plano egokia aukeratzea jada esan dudanarekin lotuta dago, eta zerikusia du irudiaren kalitate teknikoarekin ere: enkoadraketa eta fokuratzeko egoiak, kontrastea, osaera, indar-lerro bisualak, tentsio dinamikoa, testura, indar bisuala, bektoreak, orekak eta desorekak, artistikotasuna, argitasun egokia, kromatismo naturalak, irudia zuzen egotea, pixelazio-maila, unea, argazkia mugituta dagoen...

#### - **Testuinguru edo agertoki estetikokoaren azterketa**

Nire iritiz, *zarata* zera da: irudi baten

ustekabeko xehetasun bat, normalean atzealdean dagoena, eta argazkia arazorik gabe ikustea oztopatzen duena. Apalategiko apal batean utzitako jertse hori zimurtu bat izan daiteke, irudiaren angelu batean dagoen haurraren muki bat, erabat lekuz kanpo dagoen objektu bat... Adibidez, haurren plano ertain zoragarriak ikusi ditut, baina, atzealdean *zaratak* agertzen zirenez, irudiok onartezinak bihurtzen ziren, eta lehen planoak transmititu nahi zituen balioekin inkoherenteak ziren. Nik, askotan, hauxe iradokitzen dut: eszenaren protagonista nagusia estaltzea, eta irudia nola gelditzen den ikustea; era horretan, hobeto aztertu ahal izango ditugu agertokia eta beste xehetasun batzuk: bigarren mailako protagonistak, objektuen antolaketa, horien ordena, koloreak... Jakina, hori ez da alderdi formal bat bakarrik; horrek eremuen estetikari buruz – estetika eta dekorazioa ez dira gauza bera – gogoeta egitea eta plano horren irudia aldatzeko erabakiak hartzea eskatzen du; ikasgela, komuna, jangela, logela, lantegia nahiz patioa izan.

#### - **Eskuragarri dauden planoen konbinazioa**

Garrantzitsua da egindako dokumentazio-planoen antolaketa, erritmoa, konbinazioa, ordena, eta abar aintzat hartzea.

Photoshop eta bestelako programei esker, horrela iragazitako argazkiak zuzentzeko aukera izango dugu oraindik ere, hala nola beren enkoadraketa, distira, kontrastea, kroma... Baina, plangintza egokirik gabe, ezin izango ditugu zuzendu argazki batzuk, eta, gainera, denbora asko galduko dugu.

Irudi horiekin guztiekin, nahi dudan dokumentu mota egiteko oinarri egokia dut orain: powerpointak, panelak, liburuxkak... Baina, horretarako, artikulu honen mugak gainditzen dituzten erabaki tekniko eta artistiko berriak hartu beharko ditut.

#### - **Amaitzeko hasiera bat**

Hona nire gogoeta pertsonal bat. Haurren irudi dokumentalak hartzen ditudanean, gero eta gehiago jabetzen naiz nire autobiografiaren erretratua egiten ari naizela nolabait. Adibidez, haurrak eskua belarraren gainean

**Irudi batek, kontakizun bihurtzeko, mezu zehatzak komunikatu behar ditu. Forma eta edukia semantikoki lotu behar ditu: narrazioak esanguratsua izan behar du, eraginkorra, egitua, konplexua, ikuspegi ugari emateko gauza dena, interpretazioa eta berrelikadura anitzekoa.**

jarri zuenean, neurri batean, hiru bat urte nituenean belarrak nire eskuetan kilimak egiten zizkidan oroimen atsegina etorri zitzaidan burura. Haurrei buruzko dokumentazioak neure burua hobeto ezagutzeko eta nire haurtzaroko irudiak gogorarazteko aukera historiko paregabea eskaintzen dit. Albert Solék esaten duenez, dokumentalean bilatzen dena ez da irudikatzen dugun ahalmena, geure buruari zer eta nolakoak garen azaltzekoa baizik. Identitate-kontua da. Orain dela gutxi hasi naiz horretan pentsatzen.

Badakit, eta halaxe adierazi didate hainbat hezitzaile eta irakaslek ere, aipatutako guztia egiteko denbora eta baliabide ugari behar direla – giza baliabideak, batez ere –, ratioak bihotz-gogorak direla eta estresa, askotan, saihetsezina dela. Gaia gertutik ezagutzen dut, eta iritzi horretakoa naiz ni ere; baldintza hobeak aldarrikatzen ditut haur eta helduentzat. Baina eskoletan argazki ugari egiten jarraitzen dugu. Nire ustez, kontziente izanez, ahalegina eginez eta profesionaltasunez edota adierazitako zenbait irizpideri jarraituz, haurren, gure lanbidearen eta eskolaren irudia hobetu dezakegu. Hori gure erantzukizun etikoa, estetikoa eta politikoa ere bada. Eta zenbait profesional –aipatutako baldintzetan daudenak haiek ere–, hori lortzen ari dira.

Doan deskargatzeko prest:  
xuxen.eus/bertsioak

xuxen  
ixa eta elhuyar da

# Xuxen berria

euskarazko zuzentzaile ortografiko eta gramatikalaren  
plugin berriak zure ordenagailurako

Xuxen 5-ek akats  
ortografiko eta  
gramatikalak  
detektatu eta  
zuzentzeko  
proposamenak  
egiten ditu  
testuan bertan

Atzo ere polikiroldegia bete-beteta zegoen.

abc kiroldegia

Astebururako hainbat iharduera antolatu dituzte.

abc jarduera

Zuk ez esan ezer harik eta gurasoek galdetzen dute arte.

abc galdetzen duten arte

Ainitz irakurtzen duzu?

abc Anitz

2015/2016

zientziaazoka  
elhuyar da

**Gazteek garatutako proiektuen azoka hastera doa!**

2015-16 ilkasturtean zehar, taldeka, gazteek galdetu, ikertu, diseinatu, eraiki, eta bizipenak izango dituzte.

Bi modalitate:

- Ikerketa-proiektuak
- Proiektu teknologikoak

**Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka**

**Norentzat?**

12 eta 18 urtera bitarteko ikasle gazteei zuzendutako ekimena.

**Nola hartu parte?**

Izena emateko eta informazio gehiagorako, sartu <http://zientzia-azoka.elhuyar.eus> webgunean, eta segi jarraibideei.

**Eta guztia ikertzaile profesionalen aholkuekin!**

bizi  
ikerketa!

Antolatzailea

elhuyar  
Zientzia

Babesleak

Bilbao

BFA  
DFB

Forum  
Forum de Bilbao

Kolaboratzaileak

Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

upna

Universidad  
Pública de Navarra

Deusto

Facultad de Ingeniería  
Ingeniaritza Fakultatea

MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

GOI-ESKOLA  
POLITEKNIKOA  
ESCUELA  
POLITECNICA  
SUPERIOR

tecnalia

Corporación Tecnológica

IK4

Research Alliance

BTEK

BIZI TEKNOLOGIA

Casco Viejo

ZABALDIA  
Zabaldea

# ARGITALPENAK



## SENDAGAIA

Jesus Mari Olaizola 'Txiliku' /  
Ilustratzailea: Bruno Hidalgo

### ELKAR

Amur ibaiaren bestaldeko lurralde batean gertatzen den istorioa kontatzen du Txilikuk liburu honetan. Lurralde horretan dagoen lau teilatu gorriko etxe dotore batean, bi agure zahar bizi dira, ederki asko zaintzen duten baratze baten alboan.



## NON ARRAIO DAGO LOREREN TXITA?

Pat Hutchins / Itzultzailea: Manu Lopez

### PAMIELA

Baserriko ibilaldi lasaiaren ostean, Lorek bere txita aurkeztzen dio irakurleari. Txita Lore bera bezain despistatua da. Amak bazter guztiak miatuko ditu haren bila, eta, bitartean, txitaren joan-etorri komiko eta arriskutsuen lekuko izango da irakurlea.



## KROKODILOA OHE AZPIAN

Mariasun Landa

### EREIN

Tipo arrunta da ipuin honetako protagonista. Arrunta du etxea, arrunta lanbidea, arrunta izena bera ere: J.J. Ohitura arruntak ditu egunero berritzen dituenak. Baina halako batean, gaur, ohetik jaiki, eta batere arrunta ez den zerbait gertatu zaio: Krokodilo bat ikusi du bere ohe arruntaren azpian.



## KATALIN BIZIKLETAN

Liesbet Slegers /  
Itzultzailea: Leire Mendizabal

### IBAIZABAL

Katalinek bizikleta gorri-gorria du. Buruan kaskoa eta soinean txaleko fluoreszentea jantzi, eta bizikletan ibiltzera joaten da maiz Katalin aitatxorekin. Oso gogoko du bizikletan ibiltzea, baina badaki arau batzuk bete behar dituela. Bizikletan zuzen jokatzeko istorioa kontatzen du liburuak.




## ELEFANTE UZKERTIA

Jonny Moon /  
Itzultzailea: Usoa Wyssenbach

### DESCLEE

Galaxi urrun batean, estralurtar batzuek energia iturri berriztagarria aurkitu dute: mukiak. Mukirik onenak gizakiek sortzen dituzte, ordea, eta horiek urruti bizi dira. Beraz, estralurtarrek Zakar armada sortu dute gizakiak bizi diren tokira bidaiatu eta haien muki guztiak lapurtzeko.



## MUNSTROEK ERE PIXA EGITEN DUTE OHEAN

Pello Añorga / Ilustrazioak: Jokin Mitxelena

### PAMIELA

Munstroek eta haurrek ohe berean lo egiten dute eta, hortaz, ez da harrizkoa haiek ere haurrak bezain beldurtiak izatea. Valentina ausartak lagunduko die munstroei eta, beldurra barre algar eta lasaitasun bihurtuko da. Liburuak keinu egiten dio Maurice Sendak-en *Piztiak bizi diren lekuan* lanari.

# PROPOSAMENA

## ‘ORAIN’

### Kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak

‘Orain’ CDa argitaratu du Hik Hasik, kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketekin. Marina Pintos piano eta yoga irakaslea da diskoaren egilea. Kontzentrazioa eta erlaxazioa lantzeko euskarazko ariketen falta sumatuta ekin dio lanari. Berak sortu ditu diskoan jasotako ariketak, eta musika zein ahotsa ere bereak dira. CDan bildutako ariketak eskolan zein etxean landu daitezke eta haurrentzat nahiz helduentzat aproposak dira.



**E**sperientzia handia du Marina Pintosek ikasleei zein irakasleei, haurrei zein helduei kontzentrazio- eta erlaxazio-saioak ematen. Musika ikasketak egiten ari zela yogarako zaletasunak harrapatu zuen eta bi diziplina horiek lantzen dihardu azken hogeitun urteotan. Gaur egun, eskolaz eskola ibiltzen da yoga egiteak dakartzan onurak partekatuzko. Ikasleak zein irakasleak trebatzen ditu, besteak beste, yogaren bidez erlaxatzen eta arreta lantzen ikas dezaten.

Ibilbide horretan Pintos jabetu da hurrek ere badakitela zer den antsietatea, zer den estresa edota lasaitasunik eza, eta kontzentratzeko gaitasun txikia dutela. “Konturatu nintzen yogak lagundu ahal ziela haurrei ere. Hainbat urtez landu dut yoga hurrekin eta sekulako onurak sumatu ditut. Eurak ere lasaitzen, erlaxatzen, kontzentratzen... ikasten dute”. Eta bide horrek irakasleei zuzenduriko ikastaroak sortzera eraman du Pintos. Alde batetik, irakasleen estres maila handia delako, eta eurak

lasai daudenean haurrak ere lasaigo daudelako; eta, bestetik, eskolan hurrekin lantzeko aukerak proposatu nahi izan dituelako, oso interesgarria iruditzen baitzaio eskolako lehen bost minutuetan edota egunean bitan kontzentratzeko eta lasaitzeko ariketak egitea. “Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispertsioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude”.

Ikastaroetan landutakoari irakas-



leek eurek jarraipena emateko ekin zion CD-a prestatzeari Pintosek, baita kontzentrazioa nahiz erlaxazioa lantzeko euskarazko ariketan falta sumatu zuelako ere. “Bereziki, Hik Hasirekin ematen ditudan Udako Ikastaroetatik jaio zen ideia. Ofizioz irakasle diren nire ikasleak saioan landutako ariketak ea grabatuko nizkiekeen eskatuz etortzen zaitzaizkidan, eurak eskolan edo etxean lantzen jarraitu nahi zutelako. Orduan bururatu zitzaidan, helduentzat ez ezik, haurrentzat ere aproposa zen zerbait presta nezakeela, gero eskolan erabil zezaten”.

### Momentua bizitzen ikasteko


Kontzentrazio eta erlaxazio ariketak sortzeaz gain, musika eta ahotsa ere berak jartzea erabaki zuen Pintosek. Pianoari lagunduta, berriz, Luis Puentek moldatu eta jo ditu sintetizadore zatiak.

Orotara 12 piezaz dago osaturik diskoa. Lehen 8ak adinaren arabera daude sailkatuta, 4 urtetik hasi eta helduetaraino. Ariketa horietan, batetik, momentuan, orainean, arreta jartzeko baliabideak eskaintzen ditu Pintosek. Hain zuzen ere, hortik

datorkio izena diskoari. “Niretzat oso garrantzitsua da hori ikastea, hau da, oraina bizitzen ikastea”. Ariketa guztietan dago kontzentratzeko gaitasuna lantzen duen alderdia. Batzuetan erlaxazioaren bidez lantzen da; beste batzuetan, berriz, bisualizazioen bidez nahiz arnasaren edota emozio baikorren bidez.

Horietaz gain, musikaz bakarrik osaturiko 4 pieza ere baditu diskoak. Xedea da irakasleek beste ariketak adibidetzat harturik, euren ariketa propioak sortzea, aurrean daukaten taldera eta momentura egokituz. “Adibidez, 8. ariketa gustatzen bazaie, baina luzeegia iruditzen bazaie, beraiek euren erara sortzeko modua dute. Norbaitek soilik musika jarri eta erlaxatu nahi badu ere, horretarako aukera ematen du diskoak”.

CDan ageri diren adinek eta ariketek orientabide gisa balio dutela dio Pintosek, baina ez direla modu zurrunean interpretatu behar. “Nik diskoan ematen ditudan aholkua dira eta malgutasunez ulertu behar dira. Ideia bat da, hor dago, baina norberak egin behar du berea. Laburtzeko, luza-tzeko, ariketa desberdinak egiteko jokoak ematen du diskoak”.



### 'ORAIN' CD-A

#### EGILEA:

Marina Pintos

#### ARGITARATZAILEA:

Hik Hasi

#### EDUKIA:

Eskolan eta etxean kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak, haurrentzat zein helduentzat aproposak

#### SALTOKIA:

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunea edota Elkar dendak

#### PREZIOA:

15 euro (10 € harpidedunentzat)



Urriaren 8an aurkeztu zen 'Orain' diskoa Elkarren Donostiako Fermin Calbeton kaleko saltokian.

# ATZEKO ATETIK



## UMOREA IKASGELAN. ZERGATIK EZ?

**IDOIA TORREGARAI**

UEU-ko KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA

Lehen mailako gelan nago, 6 urterekin. Maria Jesus andereñoa eta Enkarnirekin txotxongiloak egiten gaude, gero antzezlarina osatzeko. Barrez gaude denbora guztian, ikasten eta gozaten. Zazpigarren mailara iritsi naiz. Ingelesa hasi behar dugu ikasten eta irakasle britaniarra sartu da gelara. Denok azti gaude, urduri, nobedade bikotzak zer ekarriko. Irakaslea ingelesez hasi zaigu hizketan, eta gure harri-durarako, antzezten hasi da. Begiak bere tokietatik aterako balitu bezala egiten du. Barrez hasi gara denok eta giroa segituan erlaxatu da. Institutuko bigarren mailan aurkitzen naiz orain. Natur Zientzietako irakasleak gure arreta erakartzen du ironia behin eta berriz erabiliz. Ez da erraza ikasgaia gainditzea, baina ikaragarri ondo pasatzen dugu berarekin.

Hortik aurrera, eta unibertsitate ikasketak bukatu arte, akabo. Irakasle bakar batek ere ez du umorea erabili bere klasean. Dena serio, dena neurtuta, dena... dena gris samar, egia esan. Goian aipatutako une eta irakasle horiek betiko eramango ditut nirekin, erakutsi nahi zutena modu erakargarri eta eraginkorrean eskaini zidatelako. Koloretan. Geroztik bizitzaren ziri-molak hezkuntza unibertsitarioaren esparrura eraman nau profesionalki, eta umorearen dimentsiora pertsonalki. Eta horregatik azken urte hauetan (alaba eta semea eskolaratzerakoan

are gehiago) galdera hau darabilt buruan: zergatik ez da erabiltzen (gehiago) umorea ikasgelan?

Historikoki umoreari ez zaio garrantzirik eman baliabide didaktiko bezala. Lehen ikerketak XVI. mendekoak dira, Felipe Neri apaizarenak eta hurrengoak, berriz, XIX. mendekoak, Don Bosco apaiza italiarrarenak ere. Hala ere, azken hiru hamarkadetan gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari den ikerketa lerroa da didaktikaren ikuspuntutik, psikologiaren ikuspuntutik eta baita psikopedagogiaren ikuspuntutik ere.

Alor hau lantzen ari diren ikertzaileen lanek eta ikerketek argi diote: umorea ikasgelan estrategia bezala erabiltzea irakasle, ikasle eta ikaske-ta prozesuarentzat oso positiboa da. Baina noski, umoreaz ari garenean, umore konstruktiboaz ari gara, lau dimentsio hauek barnebiltzen dituen, alegia: 1. Umorea sortzea bultzatzen duena. 2. Umorea estimatzea bultzatzen duena (Bizitza umorez zipriztintzea, norbere buruaz barre egiteko gai izatea, ...). 3. Arazoei aurre egiteko ikuspuntu optimista bultzatzen duena. 4. Umorea erlazio sozialetarako bultzatzen duena (jendearengana hurbiltzeko eta tentsioak murrizteko).

Izan ere, abantaila asko ditu umoreak hezkuntzan aplikatzeak. Irakasleari dagokionez, maila kognitiboan autokontzeptua indartzen laguntzen dio. “Irakasle batek bere potentziali-

tate umoristikoa ez badu ezagutzen, ez du bere baliabideen erdia ezagutzen” diote Alfonso Francia eta Jesús Damián Fernández-ek “Animar con humor aprender riendo, gozar educando” liburuan. Maila afektiboan, umorea erabiltzeak alaiago egoten laguntzen dio, bere bizitza hobetuz. Eta portaera mailan jarrera positiboa bat izateak beldurrei aurre egin eta pertsona “esnagoa” izaten laguntzen dio.

Ikasleari dagokionez: Umorea talde kohesioa indartzeko oso baliagarria da, eta ondorioz, komunikazioa ere hobea izango da ikasgelan. Horretaz gain, egoera umoristikoek egoera estresagarriari aurre egiten laguntzen du. Umoreak elkarlana sustatzen du, besteak laguntzeko aukerak akuilatzen baititu. Gainera, ikasitakoaren barneraketa askoz sakonagoa izaten da, eta ikasteko motibazioa areagotzen du. Ondorioz, emaitzak hobetzen ditu.

Irakaste/ikaste prozesuari dagokionez: Umoreak bi prozesuak esanguratsuagoak egiten ditu eta horretaz gain, sormena, bat-bapatekotasuna eta produktibitatea areagotzen ditu.

Hau guzti honengatik, alaba eta semea ikastolatik bueltatzen direnean “asko ikasi al duzu gaur?” galdetu beharrean “barre asko egin al duzu gaur?” galdetzen diet, eta umorea bizitzarako estrategia moduan erabiltzen saiatzen naiz.

# ORAIN

Kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak

MARINA PINTOS



Marina Pintos piano eta yoga irakaslea da disko honen egilea. Esperientzia zabala du ikasleei zein irakasleei kontzentrazio-erlaxazio ikastaroak ematen, eta bi hamarkada hauetan hutsune nabarmen bat sentitu du: euskarazko ariketa grabatuen falta, hezitzaileek ikastaro horiei jarraipena eman ahal izateko. Marinak berak sortu ditu disko honetako kontzentrazio-erlaxazio ariketak, eta musika zein ahotsa ere bereak dira.

**ORAIN**, Hik Hasik argitaratu duen CDa. Informazioa eta eskaerak

**www.hikhasi.eus** helbidean



**Bartzelonako El Ripollet herrian duela 11 urtetik hona garatzen ari diren “El Martinet” eskolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA ezagutzeko aukera paregabea**



**AZAROAREN 20an**, ostirala, 17:30etik 21:00etara:

- Hezkuntza Proiektuaren ezaugarriak.
- Eskolaren gaineko dokumentala.



**AZAROAREN 21ean**, larunbata, 9:00etatik 13:30era

Hiru talde osatuko dira:

- 3-4-5 urteetako ikasleekin ari diren hezitzaileekin
- 6-7-8 urteetako ikasleekin ari direnekin
- 9-10-11 urteetako kasleekin ari direnekin



**DONOSTIAko EHUko Pedagogiako Areto Nagusian**

Informazioa eta izena ematea: **[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)**